



Jende arruntarentzat ezezaguna den gaixotasuna → 3

2012ko azaroaren 1a | XXXII. urtea | 577. zenbakia

Gehigarri bereziak

Doneztebeko Feriak

BERTIZ → 10

Ehizari buruzko jardunaldi Gastronomikoak

ARANTZA → 14

Udazkeneko Kultur Egunak azaroaren 1etik 8ra

GOIZUETA → 23

Antzerkia euskaraz 1962an egin zutenei omenaldia

BAZTAN → 28

Osasun kontseilua bildu da berriz ere

AZAROAK 25 | Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna



ERREPORTAJEA → 4-5

Genero indarkeria jasan duten %5ak baino ez du jartzen salaketa eta gehienetan bikotekidea da erasotzailea

ZOKKETAK → 39



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

Eskualdean 109 salaketa azken hamar urteotan

Kolpe, irain edo bortxa. Emakume aunitzen amesgaiztoa da tratu txarrena. Badira egoera salatzeke erabakia hartzen dutenak, baina, asko dira oraindik isilean sufritzen segitzen dutenak.

Azaroaren 25ean ospatzen da emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna, erasorik ez balego ospatu beharrik egonen ez litzatekeen eguna.



ttipi-ttapa fundazioak

www.cajanavarra.com

Proiektu zk: 50063

zure laguntza behar du

Nafarroan erroldatutako 18 urtetik gorako guztiek parte har dezakete

ZUK AUKERATU ZUK ERABAKI 2013



comunal cajanavarra

BERA AGENDA AZAROA

10

larunbata

LIZARREN DOINUA (Oberena Dantza Taldea)

18:00 · Kultur Etxean
Sarrera: 3€ (12 urte arte) | 5€ (12 urtetik goiti)

GURASO ESKOLA: Zainketaren garrantzia gizaki autonomoak hezteko (Neus Albertos) · Gaztelaniaz · 17:30 · Kultur Etxean
Antolatzailea: Bortziritako Kontziliazio Ituna

15

ortzeguna

DOKUMENTALA: "Pura vida" (Iñaki Otxoa de Olza)

19:00 (Euskaraz) · 20:30 (Gaztelaniaz) · Kultur Etxean

TXALAPARTA IKASTAROA

Eskolako frontoian

Bi talde: 3-7 urte: 10:00-11:30 | 8-12 urte: 11:30-13:30

Apuntatzeko epea: azaroaren 6a · Prezioa: 5€ · Matrikulatzeko deitu 012-ra
Antolatzailea: Ricardo Baroja Ikastetxeko Guraso Elkarte
Laguntzailea: Berako Kultur Batzordea

17

larunbata

BERAKO XIV. KAFE ANTZERKI ZIKLOA

BESTE ALDEKOAK

(Asisko Urmeneta eta Peio Etxekopar)

22:00 · Xuga ostatuan

9

ortzirala

MORRISON ETA GARTZIA: KULTOKO ANTZEZLANA

(Jon Urraza eta Jon Zubiaga "Osoron")

22:00 · Kaxerna Gaztetxean

16

ortzirala

10 eta 17

larunbata

23

ortzirala

MAHAI-INGURUA PROSTITUZOAREN INGURUAN

Una mala mujer. La prostitución al descubierto (Montse Neira)

Gaztelaniaz · 17:30 · Beralandetan

24

larunbata

BERA KANTARI

"BATUTA" TXOTXONGILO SAIOA (Taun-taun taldea)

4 urtetik goiti · 17:30 · Kultur Etxean · Sarrera: 3€
Antolatzailea: Labiaga Ikastola

25

igandea

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA: Galtzagorriak dantzan (Ixabel Millet)

3-6 urte · 18:00 · Berako Herri Liburutegian

XENTIMORIK GABE

(Ramon Agirre eta Inazio Tolosa)

22:00 · Bidaxka ostatuan

23

ortzirala

Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Laguntzaileak: Bortziritako Euskara Mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordea

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan www.berakoudala.net



Azaroak 9, ortzirala
22:00etan | Xuga ostatuan
Asisko Urmeneta eta Peio Etxekopar
Beste aldekoak

Azaroak 16, ortzirala
22:00etan | Kaxerna Gaztetxean
Jon Urraza & Jon Zubiaga "Osoron"

**MORRISON ETA GARTZIA:
KULTOKO ANTZEZLANA**

Azaroak 23, ortzirala
22:00etan | Bidaxka ostatuan
Ramon Agirre eta Inazio Tolosa
XENTIMORIK GABE

**BERAKO XIV.
KAFE-ANTZERKI
ZIKLOA 2012**

Antolatzailea



Laguntzaileak



Idoia Gilleneari duela 25 urte diagnostikatu zioten lehen motako diabetesa eta Nerea Petrirenari orain dela 22 urte. Egun batetik bertera, intsulina dosiaren beharra izan

zuten. Aurretiazko abisu gehiegirik gabe agertzen baita gaixotasuna. Medikuntza aurrerapenek autokontrola eta intsulinaren dosifikazioan laguntzen badiete ere, gaixota-

sunak oraindik ez du erabateko sendabiderik. Aukeratu ez zuten bidelaguna dute alboan eta batzuetan gorroto badute ere, berarekin bizitzen ikasi dute dagoeneko.

Idoia GILLENEA eta Nerea PETIRENA | Diabetikoak

«Garrantzitsua da gaixotasunarekin bizitzen ikastea eta ez beretako»

E. IRAOLA |

Nola agertu zitzaizuen gaixotasuna?

NEREA PETIRENA: Eskolako kurtsu bukaerako bidaia baten ondoren izan zen. Bartzelonatik itzuli eta bi egunetara ospitalean ingresatu ninduten nahiko larri, 'Cetoacidosis Diabetica' batekin. Lehenengo agertzen diren sintomak egarria, pixalea eta pisua galtzea izaten dira. Gehienetan gosea izaten da, baina nire kasuan jateari utzi nion.

IDOIA GILLENEA: 10 urte nituenean diagnostikatu zidaten. Gehiegizko pisua nuen, normala baino gose gehiago edukitzen hasi nintzen eta asko jaten nuen arren, argaltzen hasi nintzen. 10 kilo galdu nituen hiru hilabetetan. Egarrria eta pixarena ere nabaritu nuen eta ahoan eta belarrietan infekzioak ere izan nituen. Ingresatu eta diabetesa diagnostikatu zidaten.

Nola eragiten du zuen egunerokoan?

I.G.: Ez ditut oztopoak sentitzen, gehiago zailtasunak dira. Diabetesa eta biok elkarrekin bizi behar dugu. Azkenean, une bakar batean ere zure albotik ez dela joango onartu behar duzu. N.P.: Geroz eta guttiago eragiten dit, baina inoiz ezin atzendu hor dagoela. Garrantzitsua da gaixotasunarekin bizitzen



UTZITAKO ARGAZKIA

Idoia Gillenea eta Nerea Petrirena diabetikoak.

ikastea eta ez beretako. **Zer nolako tratamendua behar du diabetesak?**

N.P.: Lehen motako diabetesa duzunean intsulina hartzea derrigorrezkoa da. Ariketa fisikoa eta dieta ere beharrezkoak dira. Bigarren motako diabetesarekin hasieran dieta eta ariketa fisikoarekin nahikoa izan daiteke kasu gehienetan. Diabetesaren kontrola okertzen bada, medikazioarekin hasten da.

Intsulinako ponpa erabiltzen al duzue?

N.P.: Bai, orain dela 7 urte hasi nintzen eta hagitza gustura nago. Heziketa berezia behar da

GIZARTERATZEA

«Diabetes asko edo gutti dugun galdetzen digute, horrek argi uzten du jendeak gaixotasunaz duen eza-gutza maila. Ez da ulertzeko erraza den gaixotasun bat, ez maila teorikoan ezta praktikoa ere. Diabetesa hor dago, baina ez da ikusten, ez du minik ematen, horregatik da ulertzeko hain zaila».

Idoia Gillenea
Elizondoko diabetikoa

erabiltzeko eta denontzat ez du balio.

I.G.: Ez, nik momentuz behar dudana dosia kartu txoen bidez hartzen dut.

Diabetesaren aurka zein neurri hartu litezke?

N.P.: Lehen motako diabetesaren aurka, momentuz ezin liteke ezer egin. Bigarren motakoa ez edukitzeko edo behintzat beranduago agertzeko dieta orekatu bat mantendu eta ariketa fisikoa egitea beharrezkoa da.

Nola bizi du gaixotasuna inguruko jendeak?

I.G.: Inguruko jendeak jarrera desbedinak hartzen ditu gaixotasunaren aitzinean. Izua, gehiegizko babesa, errefu-

sa, inplikazioa... kasu eta pertsona bakoitzaren araberakoa da. Diabetesa duenaren jarrerak ere asko baldintzatzen du ingurukoek gaixotasuna nola biziko duten. Oreka aurkitzea beharrezkoa da. Familiak konfidantza eman, lagundu eta autonomia eman behar dio diabetesa duen pertsonari, baina gehiegizko kontrolik gabe. Hipogluzemia kasu bat ematen bada zein neurri hartu behar dituzten ere jakin behar dute, eta horri buruz informatzea gure erantzukizuna da. **Diabetesaren Munduko Eguna ospatzen da azaroaren 14an, zein mezu zabalduko zenukete?**

N.P.: Heziketa beharrezkoa denez gizarte osoak jaso beharko lukeela. Horrela lortuko litzateke, diabetesaren eragina mundu osoan gutxitzea.

I.G.: Interesgarria eta aldi berean beharrezkoa dela gaixotasun bera dutenekin harremanak izatea. Haiiek zure azalean jarri eta hobeto ulertuko zaituztelako. Gauza bera egin behar lukete ingurukoek ere. Bertzalde aipatu, Iruñean urriaren 14an ekitaldiak eta ibilaldi bat eginen direla, eguna ospatu eta murrizketen aurkako aldarrikapenak egiteko, zuzenean eragiten baitigitte.



Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna izanen da azaroaren 25ean.

INDARKERIA GIZARTEAN

«Emakume eta gizon askok oraindik normaltzat jotzen dituzte jokabide batzuk. Ez dira kontziente indarkeria psikologikoa jasaten edo ematen ari direla».

Irene GASTON
Baztango Udaleko
berdintasun teknikaria

Apezetxeak, Bortzirieta-ko gizarte zerbitzuetako langileak judizialki prozesua aitzinera ematea oso gogorra dela azpimarratu du «mentalki oso indartsua izan behar duzu, frogak eraman behar dira, interrogatorioak bixitu, erasotzailearekin epaitegian berriz topatu... biktimari atentzioa eta laguntasuna eskaini behar zaio».

Familia eta lagunren babesa ezinbestekoa da halako egoera bati aurre egiteko. Gastonek dio «erasotuak bakarrik ez dagoela sentitu behar du eta erruduntasun sentimendua urrundu. Erasotzen duena soilik da erantzulea. Emakume horrekin lan egin behar da ahalik eta lasterren, dagozkion baliabideak martxan jarri».

ERASOTZAILEEN ETA ERASOTUEN PERFILAK

Ez dago erasotzaile eta erasotuaeren perfil zehatzik. Datuen arabera,

2003 - 2012

Tratu txarren salaketak

Herria	Kasuak
Arantza	6
Baztan	33
Bera	15
Etxalar	4
Doneztebe	13
Leitza	9
Lesaka	9
Gainerako herriak	20
Denetara	109

AZAROAK 25 → EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

Eskualdean genero indarkeriarekin lotutako 109 salaketa izan dira azken hamar urteetan

Erasotuen %5ak baino ez du jartzen salaketa eta gehienetan bikotekidea izaten da erasotzailea

Kolpe, irain edo bortxa. Emakume aunitzen amesgaiztoa da tratu txarrena. Badira egoera salatzeko erabakia hartzen dutenak, baina, asko dira oraindik isilean sufritzen segi-

tzen dutenak. Azaroaren 25ean ospatzen da emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna, erasorik ez balego ospatu beharrik egonen ez litzatekeen eguna.

Eneritz IRAOLA

Azaroaren 25a, besta eguna baino gehiago, aldarrikapen eguna da. Hainbat urtetako isiltasuna apurto nahiko lukeen aldarria. Emakumeen eztarrietatik minak eta beldurrak eraginda-

ko oihu gehiago ez egoetea eskatzen duen eguna.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak ez dira baikorrak. Salaketa kopuruak ez du beheiti egin, azken hamar urteetan %92 igo

da. Iaz 1.227 salaketa aurkeztu ziren Nafarroan. Hilabeteetan batz bertze 102 salaketa egon zirela erran nahi du horrek. Datuak, hala ere, errealitatearen zati txiki bat baino ez du erakusten. Nafarroako Berdin-

tasun Institutuaren arabera, eraso jasaten duen ehuneko bortzak, hau da, hoge emakumetik batek jartzen duelako salaketa. Irene Gastonen, Baztango Udaleko Berdintasunerako Teknikariaren, ustez batez ere, dependentsia emozional eta ekonomikoaren ondorioz gertatzen da hori «bikotekide edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria da gehienetan eta lotura sentimentalak hor daude, gainera askotan umeak ere tartean izaten dira. Bestetik, emakume askok ez dute independentzia ekonomikorik».

Salaketa jarrita prozesua hasi bertzerik ez da egiten. Epailearen aitzinean berresten ez bada, aurreneko salaketa horrek ez du egoera askorik aldatuko. Zoritxarrez, hori gertatzen da Nafarroan salaketen ehuneko hogeiarekin. Ez dute salaketarekin aitzinera egiten eta erasotzailearen eskuetan erortzen dira bertze behin. Jokin

SALAKETA PROZESUA

«**Mentalki oso indartsua izan behar duzu, frogak eraman behar dira, interrogatorioak bizitu, erasotzailearekin epaitegian berriz topatu... biktimari atentzioa eta laguntasuna eskaini behar zaio**».

Jokin APEZETXEA
Bortzirietako gizarte zerbizuetako langilea

35 urte baino gazteagoa da indarkeria jasaten dutenen %25a. Gauza bera gertatzen da erasotzailearen inguruan. Horregatik Gastonen ustez «ezin dugu aurreikusi zein izango den erasotzailea edo erasotua. Ez da egia maila ekonomiko baxuko bikoteetan soilik ematen dela, kanpotarren artean soilik gertatzen dela... Gezurrezko mito asko daude eta lan-du beharra dauzkagu».

INDARKERIA MOTAK

Tratu txar fisikoak, psikologikoa ere gibeletik dakar gehienetan. Aldiz, indarkeria psikologikoa jasan duten guztiek ez dute tratu txar fisikoa jasaten. Gastonen iduriz, indarkeria psikologikoa zailagoa da antzematen «emakume eta gizon askok oraindik normalizat jotzen dituzte jokabide batzuk. Ez dira kontziente indarkeria psikologikoa jasaten edo ematen ari direla».

IRTENBIDEA

Egoerari buelta emateko arazoaren identifikazioa da funtsa Teresa eta Maite, Leitzaldeko gizarte zerbizuetako langileen ustez «genero indarkeria identifikatu eta nola ematen den ezagutu behar dugu. Ondokoa ulertzen saiatu eta ingurukoei eredu egokiak eskainiz, indarkeriarik onar-

tu edo justifikatu gabe». Gizarte aldaketa handi baten beharraz solasten du Apezetxeak «indarkeria sexista ezabatuko bada, ezberdintasunak ezabatu behar dira lehenik eta horretarako ezinbestekoa da sozializazio-prozesuan eragiten duten erakunde eta mekanismo guztietan (familian, eskolan, hedabideetan, publizitatea, hizkuntzan...) esku hartzea». Erabiltzen diren eredu-ekin kontuz ibili behar aipatzen dute Martinez eta Perurenak «batzuetan eskaintzen diren ereduak ez dira egokiak eta horiek zuzendubehar dira. Konturatu gabe indarkeria bultzatu edo indartzen duten baloreak erabili ditzakegu naturaltasun guztia-ekin eta horiek dira, hain zuzen, kaltegarriak».

ARAZOA NOLA LANDU

Apezetxearen iritziz beti biktima hartu behar da kontuan «Gizarte langileen kode deontologikoan oinarrituz, biktimaren iritzia beti errespetatu behar dugu, bere nahiak kontuan hartuz. Publikeri salatu? Biktimarekin kontsultatuko du-

IRTENBIDEA

«**Genero indarkeria identifikatu eta nola ematen den ezagutu behar dugu. Ondokoa ulertzen saiatu eta ingurukoei eredu egokiak eskainiz, indarkeriarik onartu edo justifikatu gabe.**

Teresa MARTINEZ eta Maite PERURENA
Leitzaldeko Gizarte Zerbiz.

ERASORIK JASANEZ GERO, ZER EGIN?

Nora jo eraso bat gertatzean, larrialdiko kasuetan

112 Larrialdietarako telefonora deitu. Larrialdiak kontrolatzeko zentrala da eta urteko 365 egunetan, 24 orduz aritzen da lanean.

Jakin beharreko kontu gehiago

Erasotua **EZ DAGO BAKARRIK**, gertatutakoa ez da zure erantzukizuna: **ERASOTZAILEA DA ERANTZULEA**.

016 telefono zenbakian laguntza jasoko du. Doako telefonoa da eta fakturan ez da dei hori agertzen.

Izan konfidantza **Osasun Zentroko** profesionalengan.

Herriko **Oinarrizko Gizarte zerbizuetara** joan.



Emakumeendako Udaletako edo Eskualdeetako Laguntza Zerbizuetara jo.

Informatu alderdi legal guztiei buruz **Emakumei Laguntza Juridikoa** emateko zerbizuan (948 206287).


Salaketa jarri nahi badu, **Segurtasun Indarrekin** harremanetan jarri behar da (Foruzainak, Polizia...) eta salaketa **epaitegietan** berretsi.

Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoan zuzenbide, psikologia eta gizarte arreta ematen diote (848 423376).

Informazio gehiago **Nafarroako Berdintasunerako Institutuan**.

SALATUTAKO INDARKERIA MOTA

Denuntziatutako hiru kasuetatik bitan indarkeria fisikoa salatzen da



Datu iturria:
Nafarroako Berdintasunaren eta Familiaren Institutua

gu. Salaketa publikoaren bidez, herri txikietan alor pribatuan gertatutakoa publiko bihurtu dezakezu. Biktima ea arriskuan dagoen ere baloratu behar da. Gure lehenitasuna biktimari dau den zerbiztu eta laguntzak eskaintzea da». Gastonek dio emakumea erasotzen denean, jen-

darte osoa erasotzen dela eta erantzun bateratu bat ematea beharrezkoa dela «jendarte moduan aho batez aski dela esan beharra daukagu. Erro soziala duen arazoa da eta ezin ditugu kasu isolatu moduan ulertu». Teresa eta Maitearen iritziz «eraso bat gertatzean, gizarteak hutsuneak ditue-

la sentitu beharko genuke eta hutsune horiek esaltzearen ardura guztiona dela, bakoitzak bere mailan».

Azaroaren 25a ospatzen den azken urtea dela esatea berri pozgarria litzateke. 109. salaketari dagokion eraso, azken eraso izan zela erran nahiko lukeelako horrek.



Nire txanda
Ruben GARATE

Super-amak

Artikulu labur honek azaroan argia ikusiko badu ere, hobe etorriko litzake irail hondarrean edo urrian, 'super-amek' bateriak kargatu, depositoak gasolinaz bete eta 3, 2, 1, lasterketa hasten dutenean. Eta hau zertara datorren? Udan erlojuari begiratu beharrik gabe egon ondotik kurtso hasiera dator eta, ai ama! Maratoia hasten da: seme-alabak ernatu, mugi zaitez, garbitu, gosaldtu, jantzi zaitez abudo berandu dela! Lasterka gan eskolara, han utzi eta buelta etxeko lanak egitera. Ohartu orduko 13:15, Dios! Haurrak aterako direla, bila joan, bazkaltzera eman 15:00ak laister batean ailegatuko direlako, eskolara itzuli eta segi lasterka, berehala aterako direlako klase-tik. Hona arte maratoia, baina gero, eskolaz kanpokoen azken *sprinta* gelditzen da, kirol oinetakok jantzi, igeriketa, futbol edo pilota dela, berzteak ingeles klaseak, mekanografia, musika edo pandereta... zerrenda bukazina da eta batzuetan bi jarduera egun berean, baita ordu berean ere koadratu behar. Hau eromena! Beraz, hemendik txalo zaparrada 'super-amentzat', baita 'super airen' batentzat ere, ez daitezen haserretu.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Historia irakaslea

Historia irakasle bihurtu zaigu Espe Agirre, Madrilgo komunitateko presidente ohia. Espainiak 3.000 urte baino gehiago (?) duela eta Eskozia eta Katalunia ezin direla parean jarri adierazi du, bere garaian Eskozia erresuma izan zelako eta Katalunia ez (Beraz, Nafarroa pareka daiteke?). Zer izan ginen baino, zer izan nahi dugun erabaki nahi dugula ikasiko du noizbait (akaso).

Nabarmentzekoak



Beñat ORONOZ
Nafarroako txapeldun

Nafarroako 22 urtez behetiko buruz buruko pilota txapelketa irabazi du urriaren 21ean Larrubierren finalean Erreako lesakarrak. 18 eta 4 irabazi zion Pilotajaukuko Asier Lopez-i.



Jose Javier AGIRRE
Baztango Garapen Elkarte

Egoera sozio-ekonomiko txarragatik eta langabezia-tasa altuarengatik kezkatutako 175 baztandar biltzen ditu oraingoz Garapen Elkarteak. 29 urteko oroztarra da presidente.



Jose GARCIA
Berako albientea jubilatua

Urteak eman ditu udal albiente lanean eta erretiroa hartzeko orduan, udal ordezkariaren esker oneko hitzak jaso ditu. Familiak eta bizikletaz gozatzeko modua izanen du orain.

Atzera begira → 2002.10.31 / TTIPI-TTAPA 337. zbk



Lekarozko Kolegioaren azken hatsa

Duela hamar urte, 2002ko abenduan aldegin zuten Lekarozko Kolegiotik azkeneko kaputxinoek, 114 urteko historiari akabaila emanek. 1888ko apirilaren 22an sortu baitzen ikastetxea. Lehenbiziko 47 urtetan kaputxinoen apaiztegi izan zen eta gero Bigarren Hezkuntzako institutu bihurtu zen. Geroztik ospe handiko eskola izan zen eta 7.000 ikasle baino gehiago pasatu ziren, tartean Jorge Oteiza artista, Nicanor Zabaleta musikari handia, Leizaola politikari abertzalea edo Urkijo bankari ezaguna. Ramon Apezetxea apezarekin ageri den Juan Bautista Lukinek (Aita Victor Urbiolako) eman zigun historiaren berri.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneiz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerenziain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administratzailea** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Zugararmurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Udazken berezia

Mikel TABERNA IRAZOKI *Kapi*

Udazkeneko kronikak igualtsuak izaten dira beti. Orain dela ehun bat urte Etxalarko Teodoro Arburuak ere bereak idatzi zituen *La Tradición Navarra egunkarian*. Honela kontatzen zuen: “Etxalarko usategiyetan lotuak dire uso eiziari. Agiyan usazale prestu-prestuak ttorttoil baño uso geyago bilduko dute! Egun batian bakarrik ikusi izan dituzte ttorttoil multxo pollitak”. Ttorttoil ehizako sareak kendu ondotik hedatzen omen ziren uso sareak: “Uso eizia ongi samar asi dute, txolomak eta usuak naste bortzeun bat arrapatu dituzte zortzi egunotan”.

Ekonomiako kontuak ere baziren Arburuaren idazki haietan, ez gaur egungoak bezain kezkarriak: “Buruileko azken egunetako beruekin aintzinaldi on bat artu dute nekazariak, lan giro auta-autak dituzte eta maila onian badaramazkite ebenlanak. Beran eta Lesakan sagar polliki bade-lako berriya da eta Etxelarren ere pixarren bat, den puxka, urretan saldu omen da (karga 26'27 pezetetan)”.

Baina gauza batzuk aldatzen dira urtetik urtera. Aurten, ni, zerura begira ibili naiz egunero. Badakit ehiztariak tiroka ari direla, baina nire begiek ez dute oraindik uso multzorik harapatu. Irratian aditu nuen lehengoan norbaitek lertsun tropa bat ikusi zuela. Ni oraindik esperoan nago. Ordea, ohartu naiz oihanetako koloreak aldatu direla. Eta aitzin horretan mendiak onddo batzuk eman zizkidan erregalu, lurreen sortzen diren perlak.

Bertzalde, herenegun, Berako lantegi batean ari den lagunak erran zidan despeditu behar dutela, fabrikari ia berrogei urte eman eta gero. Atzo, Iruñean, langileak pankarta baten gibelean ikusi nituen, patrioiak ez dielako jorna ordaintzen. Gaur, emakume bat garrasika aditu dut poliziak preso hastu duenean olio botila bat ebasteagatik»

Haize hego eroak nahi bezala nahasi ditu auzo probintzietako hauteskundeetako boto-paperak. Agian ere ehun urteren buruan bertze norbaitek udazkeneko bere kronika eskribituko du TTIPI-TTAPA postelektroniko batean. Baina, zer izanen ote da orduan hemengo bizimoduko martxa?

Lokaztutako distira

Joseba URKIOLA

Astean zehar eraikitako kezkak ahaztu eta orduoroko tris-turak ezeztatzeke alternatiba eraginkor bilakatua da aspaldion kirola. Zer lirateke asteburuak kirolik gabe? Antzerkiak, zineak eta mendi txango ilustratuak askoren jomuga dira, baina etxetik mugitu nahi edo ezin duenarentzat izerdia esentziatzen daukan ikuskizuna ezinbestekoa da.

Futbola da ikuskizun horretan askoren ikaskizun txoko. Baloia- ren joko zoroa espektakulutik haratago joana den praktikatzat hartu behar dugu. Etxeko txiki askoren heroiak berdegunetan daude eta futbol taldeak erlijio ere badira bat baino gehiagorentzat. Gustoko taldearen garaipenak aste txar bat onean eraldatu omen dezake eta porrota, depresio sortzaile izan daiteke. Garai makur hauek futbolearen present dira baina gizarteak dion begirunea tarteko, bestelako oxigeno batekin arnasten dute egoera. Talde asko dira banketxeekin zorpetuak daudenak eta Ogasunari eman beharreko dirutzak sineskaitzak dira. Goi agintariak baina ez ikusiarena egiten dute, ezer jakingo ez balute bezala. Kirola eta kirolariak aspalditik dira boto potentzial garrantzitsu, eta helburu pribatuak asetzeko diru publikoaren erabilera mugagabea eguneroko ogi da.

Baloia- ren joko zoroa aspaldian iruzurretik, gezurretik eta itxurakeria antzutik asko daukan praktika ere izan badela esan behar da. Dirua non, marrazoak han esan ohi da eta hemen ere berdintsu. Globalizazioak bere eragina izan du, eta ez nola nahikoa gainera. Europako merkaturak liberalizatzeak eta mundu osoan baloiarekiko interesa nabarmen handitzeak, mafien hedatzea ekarri du. Hasieran olatu txiki zena, orain iruzurraren tsunami garrantzitsu bilakatu da.

Une honetan 994 jokalaririk afrikarrek Europako 49 ligatan jokatzen dute. Afrikatik ateratzen diren jokalarien %80a ezkutuko enpresa hauen fruitu dira. Iruzur egile hauen arduradunek ondo dakite futbola pasio sortzaile emankorra dela, txirotasunarekin amaitzeko formula eta horretaz baliatzen dira txikienekin nahi dutena egiteko. Jendeak ikasketak ahazturaren uhartean uzten ditu. Kirolari edo musikari izan ezean, European arrakasta izatea ezinezkoa izango denaren ideia ondoegi barneratua daukate. Amets antzu horren bila, kontrolik gabeko futbol akademiak Afrikako bazter guztietan aurkitu daitezke. Ikas gune horietan egoten diren gazteek etorkizun oparo bat dute desio. Hori betetze aldera, mafia hauetako arduradunek 1.000 eta 10.000 euro bitarte ematen dizkiete familiei. Gurasoek kopuru horri muzin egin ez, eta ‘saldu’ egin beharrean aurkitzen dira. Hitzeko akordio hauetan gezurra eta utopia erabat present dauden kontzeptuak dira. Europako talde garrantzitsuetan probak egingo dituztela esaten baitzaie eta hori %2ak nekez bete dezake.

2007an Europar Batasunean iruzur hauek ezeztatzeke pau-soak eman nahi izan ziren, baina gora egin du nabarmen kopuruak. European egun 7.000 eta 20.000 etorkin afrikar daude ezezean amilduak. Nora joan ez dakitenak, ustezko errealitate oparo batek betirako itsu utzi dituztenak. Eurentzat bitzta bera bilakatu da amaierarik ez duen partida. Epaileak ez dira hiru eta eguneroko ogia lortzeak golaren balioa dauka. Baloia-ri ostikoa ematea desio zutenak hasieran, beraiek dira orain errealitate krudelaren ostiko hartzaile. Area batetik bestera, nora ezean dabilzanak zorientasunaren sarea noiz ferekatuko zain.

Irakurleak mintzo

Trikimailua
euskararen
kontra?Juainas PAUL ARZAK
(Zubieta)

Aspaldi xamar hartu genuen lagunak eta biok Aurretiatzko Borondate Agiria sinatzeko erabakia. Uda honetan gauzatu dugu. Osasun Departamentuan egiten den gauza izanik, hila-bete batzuk direla joan nintzen, paperak eza-gutu eta etxeratzeko. Bulegoan euskaldun bakarra topatu nuen, orduan, baina horrek ez zidan gehiegi kezkatu. Bat izatea salbuespen-tzat har daitekeelako, eta, hori gutti balitz, paper guztiak bietan zeuden eta daudelako.

Abuztu hasieran eraman genituen eskatzen dituzten paperak eta sinatzera hurbildu ginen. Egun hartan -zazpia zen- ez zegoen euskaldunik gu atenditzeko. Paperak euskaraz bete eta sinatuta, alde egin genuen.


Hamar bat egun beranduago, agian, telefono dei bat jaso genuen. Osasun bulegotik omen zen. Gure harri-durarako zera eskatzen ziguten: Amaya kaleko bulegora berriro joateko euskaraz sinatutako paperak gaztelaniaz sinatzera. Aitzakia mundiala iruditu zitzaigun: gure osasuna sendagile erdaldun baten eskuan egonez gero...ez lukeela ulertuko guk euskaraz eskatutakoa. Hasierako paragrafoaren

bukaeran paper guztiak bietan daudela idatzi dut eta hori bera erantzun nion telefonoz beste aldean zegoenari. Berearekin tematu zen eta, azkenean, gure erabakia aldatuko ez genuela garbi gelditu zitzaionean, astakeria mundiala egingo bagenukeen doinua hedatuz eskegi zuen telefonoa.

Abuztuaren 27an sinatutako eskutitz bana jaso genuen egunetara. Gaztelania hutsez dio:

Recibido en este Departamento de Salud del Gobierno de Navarra su documento de Voluntades Anticipadas, le comunicamos que éste ha quedado inscrito en el Registro de Voluntades Anticipadas de Navarra con el número...

Hau guztia nola uler daiteke? Euskararen aurka okasiorik txikiena profitatzen dute batzuek, hala nola, kasu honetan, hiritarrek nolabait tokiz kanpo egoitea eta burokraziaren aurreko menpeko eta beldurra. Lotsaemangarria! Amorrubizia behar da baztertuta dagoena gehiago baztertzen saiatzeko. Euskara hizkuntz bat da, inolaz ere ez deabruaren hitz jarria.



Bota bertsoa

Amaia ELIZAGOIEN (Oronoz-Mugairi) • Doinua: Afari ikaragarri (Bidaia Ternuara)

Emakumeen aurkako bortizkeria

Nork ez du gustoko izan sentitzea maitatua askeena sentitzea baina berari lotua ta orduak pasatzea harekin besarkatua baina etxetik etxera ez da berdina kantua (bis) askotan emakumea egon ohi da beldurtua ta jotzeko jartzen dio senarrak soilik eskua nora goaz eta nola atera zazu kontua lehenengo printzipioa ez bada errespetua (bis)

Biktimak oraindik daude daudenak haien menperata beste hamaika andre joanak dira lurperazein zaila izan behar den neskak hoi papera beldurra ematen badie sartzea haien etxera (bis) denok batera soilikan egin ahal dugu aurrera ze oraindik urrun dago arazoan bukaera bizi gabetik pasatu nahi dugu bizidunera biktima bat izatetik gizaki bat izatera (bis).

Jesus
JaimerenaXanti BEGIRISTAIN
MADOTZ (Iruñea)

Jesus Jaimerena edo Don Jesus jende askorentzat, orain, gaitz fisiko batek ez dizunean uzten ibiltzen kalean, elizan eta etxean zuk nahi bezala, beti egin duzun moduan, ez ezazu pentsa ezagutzen zaitugunok ahaztuta zaitugunik, ez, askok eta askok sarritan gogoratzen zaitugu eta askotan galdetzen dugu zutaz.

Izan ere, Baztanen, Aranon, Lekunberrin, Larraunen eta beste leku askotan ere egin duzun lana handia baita; ez da lan makala izan. Batere kobratu gabe, hau da, dohainik, zure eginbeharrez gain, urte askoan aritu zara haur, gazte eta helduei pilotan, dantzak, antzerkia,

solfeoa, txistua, euskara, latina, abestiak eta abar irakasten, partiturak prestatzen, grabazioak egiten, Eguberrietako jaiotzak atontzen eta bat eta beste. Hori guztia zaila da egiten bizitza bakar batean, baina zuk horrela egin duzu, eskuzabaltasunez, eta, ezagutu eta ezagutzen zaitugun guztiok hori ez gence behin ere ahaztu beharko.

Nik neronek ere oso ongi gogoratzen dut, hamabi bat urte nituenean, eta Behiko Bordan bi hankak igeltsuz bilduta nengoenean, ebakuntza baten ondoren, nola joan zinen oinez nireganaino, plastikozko Poxpolin izeneko txistu xume bat eta zerorrek idatzitako musika eskala bat eskuetan hartuta, eta nola eman zidan lehenengo eskola etxean bertan, denbora ongi aprobetxatu ezan. Horixe bai dela etxeko dohaine-

ko zerbitzua, alajaina! Geroago ere, zerorrek utzitako liburuxka txiki bati esker, hasi nintzen hartzen euskarari buruz, funtsezko lehenengo nozioak. Eta seguru nago, niri bezalatsu, beste jende askori ere antzeko zerbait gertatuko zitzaioala zurekin.

Pixka bat ezagutzen zaitugun guztiok, oso ongi dakigu ez dituzula inondik ere gustuko omenaldiak, baina, hala ere, oraingo honetan bekatu txiki hau barkatu beharko didazu, idatzi ñimiño hau zu gogoratu eta goratzeko egin baitut. Eta haserretu baino lehen, badakizu, Don Jesus, oraindik jende askok gogotik estimatzen zaituela; hauxe horren froga txiki bat besterik ez da izan.

Ea egunen batean, aukeratzoren bat ote dudan zuri bisita motz bat egiteko. Bitartean, ongi bizi eta eutsi goiari! Besarkada bero bat.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Zinez espero dut herri kirolak ez desagertzea, Euskal Herriko kulturaren zeinua dira, azken finean. Brasilen ihauteriak desagertzearen pare izango litzateke». «Sokatiran pisua zaindu behar izaten genuen, txingetan ordea ez, orduan eta gehiago jan hobere. Niretzat txuleta jatea eta basokada bat ardo edatea primerakoa da!».

Xanta SOUZA
Lesakako kirolaria
GAUR 8, 2012.11.13



«Futbola ikusteko beste modu bat da gaur egunekoak. Kanpoko jende gehiago dator Osasunara, nere errespetu guziarekin eta ongi etorriak izan daitezela. Baina ez da 20 jokalaririk nafar dituen plantilla baten berdina». «Nere herrian pilotan bakarrak aritzen ginen. Ez nuen uste hain urrun ailegatuko nintzenik, UEFAn ere aritu bainintzen Osasunarekin».

J.M. ETXEBERRIA
Goizuetako futbolari ohia
D. NAVARRA, 2012.10.16

11 galdera labur

Zergatik bihurtu zinen solaslagun?

Euskaraz hitz egiteko.

Nor nori nork-ak buruhauste asko ematen al dizkizu?

Pixka bat...

Solaslagunarekin zein da zure helburu nagusia?

Euskara ondo menperatzea.

Zer lortu duzu solaslagunarekin?

Euskaraz hitz egiteko aukera eta aitzakia horrekin nire aldetik landu, bai irakurtzen, bai irratia entzuten eta ia beti ulertzen ez ditudan hitzak hiztegiaren begiratzeko.

Solaslagunarekin zer du garrantzia gehiago solasak edo lagunak?

Solas egiten lagunak egiten ahal dituzu ere.

Pasa den urtean ere solaslagunarekin aritu zinen. Aurten berriz. Utzi ezin den ohitura al da?

Euskara menperatzeko helburua dut eta urte batekin nahikoa izan ez dudanez, itzuli egin naiz.

Zer da oraindik euskararen aldeetik hobetzeko gelditzen zaizuna?

Ausartzea, hitz egiten dudanean batzuetan hanka sartzen dudala uste dut oraindik.

Solaslagunarekin poteoan, sagardotegian... ez al da parrandarako aitzakia?

Urtean behin...ez da hainbes-

terako ere! Mendira ere joaten gara eta egun bateko bidaiak ere egin ditugu.

Zer erranen zenieke euskaldun berriei eta zaharrei?

Atxagak esaten duen bezala: euskaldun zaharrak aditzarengatik eta euskaldun berriak erraztasuna ez edukitzeagatik azkenean euskara dela galtzailea.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Malerrekan?

Baikorra naiz. Gazteak ia denak euskaraz bizi dira, baina helduei, nahiz eta oso ondo hitz egin, ez zaie asko aditzen.

Ametz bat?

Euskaraz bizitzea.



Itziar IRASTORTZA → Malerreko solaslaguna

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertzaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

Javier Manterola
Tekniko instalatzailea
iturgintza • gasa
kalafakzioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

Xirgil
Alizate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktuak
Eztegara, 3 • BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

F. LANCHAS
Akutxidorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ERREKALDE
PLATER KONBINAITUAK
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 • Alizate, 17 • BERA

BERA
Zure inguru klase guztietako inektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

GIZARTEA

TURISMOA → HOGEIGARREN EDIZIOA BETE DU

16 jatetxek parte hartuko dute ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan

Urriaren 26tik abenduaren 2ra eskainiko da

TTIPI-TTAPA

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako 16 jatetxek parte hartuko dute aurreko hogeigarren aldiz egiten diren ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan. Informazio orrietan nahiz kartetan agertuko den irudiaren egilea, berriz, Tomas Sobrino margolari baztandarra da.

Bertziko Partzuergo Tu-

ristikoak antolatzen dituen jardueren artean, ohikoa bihurtu den ekimena urriaren 26tik abenduaren 2ra eskainiko da.

Hauek izanen dira ehizari lotutako menu bereziak eskainiko dituzten 16 jatetxeak (jaz baino 3 gehiago): Almandozko Beola, Arantzako Burlada eta Aterpe, Berako Euskalduna, Zalain eta Zubiondo, Donamariako Benta, Doneztebeko Amezti, Elbeteko Posada eta Oñaska Berri, Etxalarko Herriko Osta-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Tomas Sobrinoren *Ehiza erakustaldia* margolana agertuko da jatetxeetako kartetan.

tua eta Benta, Igantziko La Villa, Iruritako Olari, Lesakako Koxkonta eta Oizko Posada.

Partzuergoak menu guztiak biltzen dituen folletoa argitaratu du, jatetxeetan eta informazio

turistiko puntuetan eskuragarri egonen dena, baita www.consortio-bertiz.org webgunean.

Ingelera hitzegiteko aukera bakarra ingeleraz hitzegitea da.

- * Mintzamen talde murriztuak.
- * Cambridge eta E.S.O.L azterketen prestaketa.
- * Ingelera orokorra edo teknikoa.
- * Empresa eta profesionalentzako ingelera.
- * Itzulpenak: dokumentuak, CV, menuak, e-mailak, gutunak, sloganak eta logotipoak.

Cambridge ESOL
Exam Preparation Centre

Donal O'Leary
677 025 598
duxyleary@hotmail.com



GIZARTEA → ARALAR ETA BILDUREN ALDEKO BOTOEKIN ETA PNV ETA UPNREN KONTRAKOEKIN

Atez ateko bilteta sistema ezartzearen alde agertu da Udala

Materia organikoa eta errefusa biltzeko

TTIPI-TTAPA

Hondakinen kudeaketan materia organikoa eta errefusak biltzeko atez ateko sistema ezartzearen alde agertu da Udala, Aralar eta Bilduren aldeko botoekin eta PNV eta UPNren kontrakoekin. Aldi berean, baserri auzoetan konposta egitera bultzatuko da.

PNV bosgarren kontenedorearen alde dago eta Santi Altzuguren zinegotziak aipatu zuenez, «atez ateko sistema jarri duten herrietan usain txarra, zikina... azkenean jendeak bertze herrietara eramaten du zaborra». Marisol Taberna alkateak adierazi zuenez, «gaia oso inportantea da eta jendeari kontzientziatu egin behar zaio, utzikeria ezin da bultzatu».

UPNko Juan Losak, bere aldetik, atez ateko «Bilduren proiektu izarra» dela adierazi zuen. Honierantzuz, «Italian, Katalunian, Madrilan egiten da, horrela hitz egiten du datuak ikusi ez dituelako» adierazi zuen Bilduko Jose Mari Portuk, birziklatzeko atez ateko sistemak eragina handiagoa duela gogoraraziz. Aralarreko Nekane Perez erranetan, berriz, «apostua egin da eredu honengatik hobereena delako, ez behartuak, ikusirik birziklapenaren kopurua eta gastua».



ARGAZKIAK: FOTO GOIKO ETA UTZITAKO ARGAZKIA

Lurra emankor dabil udazken honetan

Paco Rodriguez dugu ezkerreko argazkian, 850 eta 450 gramo pisatu zituzten onddo dotoreekin. Placido Pacheco eskuinekoan, 9 kiloko sandia edo angurri gozoarekin. Kantton Ttikin, monjen iturri ondoan duen baratzetik bildu zuen ale eder hori eta bertze batzuk. Bero aunitz eta ur gutti behar dute sandiek eta hortaz, uda espeziala izan dute aurten. Pacok ez digu erran zein baratzetik bildu dituen onddoak.

Lizarren doinua azaroaren 10ean

Lizarren Doinua ikusgarria eskekiniko du Oberena dantza taldeak azaroaren 10ean Berako Kultur Etxean 18:00etan. Oberena dantza taldeko ttikiekin egindako lana da, iaz taldearen 70. urteurrenaren karietara aurkezturikoa. Antzerkia eta dantza uztartzen ditu obrak, eta dantzariak gainera, Oberena fanfarreak, txalapartariak, gaiteroak eta erraldoiek parte hartzen dute. Ikusentzunezko euskarriak ere baliatzen ditu obraren zati batean, Jon Garaik egindako marrazki bizi-dunei esker. Ez bairik gabe, Oberenako dantzari ttikiek egin duten proiektu handienetarikoa bat izan da hau. Gure Txokoa dantza taldeak ekarriko du Berara.

Txalaparta ikastaroa

Azaroaren 10 eta 17an ttikientzat txalaparta ikastaroa antolatuko du Ricardo Baroja Ikastetxeko Guraso Elkarteak, Kultur Batzordearen laguntzarekin. Apuntatzen direnekin bitalde eginen dira. 3 eta 7 urte bitarteko neska-mutikoak 10:00etatik 11:30era ariko dira eta 8 eta 12 urte artekoak 11:30etik 13:30era, eskolako frontoian. Ikastaroan apuntatzeko epea azaroaren 6an bukatuko da. Matrikultatzeako 012 telefonora deitu behar da eta prezioa 5 eurokoa da. Bere garaian, eskolak plantatu zituen txalaparta ikastaroak, baina guttienez 7-8 urte bazituen antolatuko gabe. Berriz ere, ttakun-ttakun!

Haur eta gazteen Ipuin lehiaketa

Herri Liburutegiak eta Kultur Batzordeak Bortziritako Haur eta Gazte-tetxoen Ipuin Lehiaketa antolatuko dute aurten ere. Hiru mailatan sailkatuko dute, adinaren arabera, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta DBHko 2. maila bitarte. Gaia librea izanen da eta irudimena, txukuntasuna, originaltasuna eta hizkuntzaren aberastasuna baloratuko dira. Idazkiak eskuz idatziak izan behar dute, ez dira onartuko idazmakinez edota ordenagailuz idatziak. Bortziritako biztanlea izatea beharrezkoa da, baita euskaraz aurkeztea ere. Ipuinak entregatzeko azken eguna azaroaren 30a izanen da eta sari banaketa abenduaren 14an eginen da.

XIV. Kafe antzerki zikloa

Azaroaren 9an hasiko da Kafe Antzerki Zikloaren 14. edizioa. 22:00etan hasita *Beste aldekoak* antzezlan eskainiko dute Asisko Urmeneta eta Peio Etxekoparek Xuga ostatuan. Euskara batzordeak antolatzen du, Kultur Batzordearen eta Bortziritako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin.

Azaroaren 16an, Kaxerna gaztetxean izanen da emanaldia 22:00etan. Zehazki, Jon Urraza & Jon Zubiaga *Osoronek Morrison eta Gartzia: kultuko antzezlan* aularatuko dute.

Azaroaren 23an, azkenik, Bidaxka ostatuan *Xentimorik gabe* lana eskainiko dute Ramon Agirre eta Inazio To Losak.



Pertsonaia
Jose GARCIA SACRISTAN

Udal albientea erretiratu da

Urteak eman ditu Jose Garciak albiente lanean eta erretiroa hartzerakoan, udalaren esker ona jaso du: «Zuk zurea utziko duzu udal honetan eta herri honetan, zure estiloa, seriotasuna, hurbiltasunarekin jantzita, liskarraren erdian, ahotsa altxatu gabe elkarriketara jo duzu, azalpenak pazientziarekin eman dituzu, zure papera idatzita gelditzen da hemen» dio udalak onartutako idatziak.

LESAKA

GIZARTEA → HONDAKINEN KUDEAKETA

Atez atekoari buruzko herri kontsulta egitea nahi du PNVk

Zintzilikatutako kubo marroiek «inpakto estetikoa» sortuko dutela dio

Aitor AROTZENA

Atez atekoa ezarri den tokietan, «herritarren arteko haserreak sortzen ari direla eta», Hiri hondakinen bilketa sistema ezberdinei buruzko eztabaida eta herritarren partehartzea bultzatzeko akordioak hartzea eskatu du PNVko udal taldeak.

Urriaren 5eko batzarraren hartu zuen udalaldu atez ateko sistema ezartzeko erabakia, Bilduren aldeko botuekin. PNVk zera eskatu du, «Bilduren alde bakarreko erabaki honen aitzinean, herritarrek behar bezala informatzea, atea atekoari buruzko herri kontsulta egitea eta gero, kontsultaren emaitza onartzea».

PNVren ustez, «Bilduk udaletxean duen gehiengo osoa nahikoa izan da, inolako eztabaidarik gabe, herritar guzietan zuzenean eraginen dien hain erabaki

garrantzitsua hartzeko». Atez atekoa ezarri den herrietan harrera «ez dela batera baketsua izan» dio PNVk, «eguneroko bizimoduko ohituretan aldaketa handia ekarzen duelako».

PNVren arabera, «familia bakoitzak zabor poltsak nahi duen orduan botatzeko askatasun individuala desagertuko da eta hondakin mota bakoitzerako estu-estu segitu behar den egutegiari egokitu beharko du, karriketatik gaur egungo edukiontzia desagertuko baitira, beirarentzako iglu berdeak izan ezik». Gainera, Etxegarairaren arabera, «zabor organikoaren kasuan, egungo plastikozko poltsen ordez, kubo marroiak zintzilikatuko dira, horrek eraginen duen inpakto estetikoareki». Alde horretatik, «Lesakako estetikari eta hirigintzan eragin dezakeen edozein aldaketaren kompetentzia udalarena da eta ez mankomunitatearena».

PNVren ustez, beraz, garrantzi honetako gaia ezin da modu honetan ezarri eta atez ateko sistema jartzeko plana gibelatzea eta informazioa ematea eskatu du.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Arkupe paleta goma finalak

Arkupe pilotazale elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta txapelketako final handian, Lizarrako Susana eta Inesek 30 eta 19 irabazi zieten Bea eta Janira gazteei urriaren 20an. Hirugarren posturako lehian, Maite eta Saioak 30 eta 22 irabazi zieten Judith eta Edurneri.

Jubilatuena Eguna azaroaren 9an

San Fermin elkarteak jubilatuena eguna antolatu du azaroaren 9an. 12:30ean Meza Nagusia ospatuko da San Martin elizan. 13:30ean Aureskua dantzatuko zaie omenduei Plaza Zaharrea. 14:00etan bazkaria izanen dute frontoian. Bazkarirako izen ematea azaroaren 2a baino lehen egin behar da, Nafarroako Kutzako bulegoan edo San Fermin elkartearen.

Bazkalondoan, 16:30 aldera omenaldia eskainiko zaie aurten Diamantezko ezteiak, Urrezko ezteiak eta 85 urte betetzen dituztenei. 17:30ean sariak eta trofeoak banatuko ditu San Fermin Elkarteak. 18:00etan dantzaldia izanen da Salvador Madariagaren eskutik.

Keinu Leihoak 2012 antzerki zikloa

Bertze urte batez, Mairu antzerki taldeak *Keinu Leihoak* antzerki zikloa antolatu du, Udalaren laguntzarekin.

Lehenbiziko saioa urriaren 27an izan zen Kasinon, clown inprobisazioekin.

Azaroaren 1ean, ortzegun arratsaldeko 18:00etan *Herio heroi* antzezlan eskainiko du Metrokuadroka taldeak Kasinon.

Azaroaren 2an, ortziral arratseko 22:30ean Barry Barrez & Baltziskueta taldeak *Euskalduna naiz eta arraro nago* lana taularatuko du Atxaspin.

Bukatzeke, azaroaren 3an, larunbatarekin, Xagu Antzerki taldearen *Agur Manhattan* izanen da ikusgai 20:30ean Kasinon.

Txondorra piztuko da azaroaren 11n

Txondorra egiteko ekimena aintzineratuta da. Baimenak lortu ondoren, hasierako prestaketa lanei hasiera eman diete Arrano elkarteak kideek eta lehen auzolana egin zuten larunbatean Landazelaian, han kokatu baita txondorren plaza. Egurra puskatu eta pilatu ondoren, txondorra eginen den egunean esku bat botatzeko, txondorren zainketa lanetan laguntzeko, ikatza biltzeko eta txondorren inguruan antolatu nahi dituzten kultur ekitaldien antolakuntzan laguntza eskatu dute. Txondorra azaroaren 10ean egin eta azaroaren 11n piztea da asmoa eta Olentzero egunerako, txondorren egindako ikatza izaitea da erronka.

XATURETXEA

JATETXEA
 T: 948 637 260 · LESAKA

IRU BIDE
 Erretegia · Asador

 Biurrana, 3 · Lesaka
 Tel: 948 637 127

- Lentzeria
 - Bainujantziak
 - Mertzzeria
 - Jantzi tipikoak
 - Peñen blusak

kattogorria
 lentzeria mertzzeria
 Behoko plaza 10 31770 Lesaka
 T. 948 627 514

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
 Berria erosi taldea

BEKO

 LOREAK ETA LANDAREAK
 Frain Auzoa · LESAKA
 Tfnoa: 948 637 826

GIZARTEA → EGUBERRIETAKO SASKIAREN ZOZKETA EGINEN DA ABENDUAREN 9AN

Organoa zaharberritzeko falta den dirua atera nahian ari dira herritarrak

Eguberritako saskia eta azoka solidarioa martxan dira

Irune eta Itsaso

Aitzineko TTIPI-TTAPA An aipatu bezela, Elizako organoa konponitzeko falta den dirua ateratzeko momentuz bi modutan lagundu daiteke. Alde batetik, Eguberritako saski eder bat zozketatuko da; hainbat produktuz osatua izanen dena, eta hoietatik aunitz bertakoak. Boleto bakoitza 2 eurotan egonen da salgai eta saskia plazako dendan egonen da ikusgai. Zozketa abenduaren 9an eguerdiko 13:00etan egingen da plazan.

AZOKA SOLIDARIOA

Bertze aldetik merkatu solidarioa egingen da frontoian abenduaren 6, 8 eta 9an. Orain arte jendeak emandako hainbat gauza, hagitx aspaldikoak eta bali handikoak, (goatze-



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Eguraldi txarrarekin lanik ez zegoenez, usazaleak etxolan lasai ederrean.

ko arropa, tapete ttiak, toailak...) izanen dira salgai. Honetaz aparte, hainbat tresna eta bertako zenbait produktu prezio onean aurkitzeko aukera izanen du jendeak.

Merkatu honetarako, norbaitek zerbait eskaini edo eman nahi balu, telefono honetara deitu: 626788090 edo 948635028.

Usategietako igandea

Usategietako igandearen bezperatik somatzen zen besta giroa herrian. Alde batetik, 25 lagun inguru bidu ziren frontoian egin zen asto jatera. Bertze aldetik Emakume afaria ere izan zen Herriko Ostatuan.

Urriaren 21ean ospatu zen Usategietako

igandea Etxalarren. Eguraldiak ez zuen baxterez lagundu, goizetik euria baitzen, eta hori dela eta Usategietan hagitx jende guti ibili zen. Hala ere, ilunabarrerako jendea hurbiltzen joan zen plaza aldera. Urtero bezala, boletoen zozketa egin zen. Hauen izan ziren saridunak: lehenengo saria Iñaki Zubietarentzat izan zen,

12 uso bizirik. Bigarren saria ere berarentzat izan zen; 2 lagunentzako afaria. Hirugarren saria berriz, Goreti Ibarrek eraman zuen; kanpin denda bat.

Usategietako igandea arte, uso eta txolomak guztira, 18 dozena pasata dituzte. Aurten go sasoia mottel hasi da, eta nahiz eta lehenengo urtean egun honetarako gehiago arrapatua izan, oraindik aunitz falta da azaroaren 20a arte eta esperantzarekin daude.

Bisita gidatuei dago-kionez, 90 bisita egin dira orain arte, eta espero da kopuruak gora segitzea sasoiaren aitzineira joan ahala.

Multi kirolak

Multikirolak, aurten hasi den eskolaz kanpoko jardura berriak, arrakasta handia izan du; 30 haur inguruk eman dute izena eta bi talde egin behar izan dituzte. Ortziral arratsaldetan 16:15etik 18:15era aritzen dira.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034) 948 63 54 58

T/F. 948 63 70 30
Albistur, 9 · LESAKA
lesaka@legarra.org

Urtarrilean!
Koskontako bidea, 7

mugitzen ari gara
LEGARRA
LIBURUDENDA

Koskontako bidea, 7
LEGARRA

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak · Burdin tresnak
- Insektizidak · Edariak · Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egingen da
Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxe: 948 63 52 14 · ETXALAR

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel. 948 625 474

ARANTZA

KULTURA → BASERRITARREN EGUNA HILAREN 1EAN

Azoka, solasaldiak, filme emanaldiak eta bertsoak izanen dira Udazkeneko Kulturaldian

Euskara Batzordeak azaroaren 1etik 8ra ekitaldi partehartzaileak antolatu ditu

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean adierazten genuen moduan, urtero bezala, gainean ditugu udazkeneko kultur ekitaldiak. Herritar talde bat euskara batzordeak biltzen da eta hainbat ekitaldien artean, udazkeneko kulturaldia prestatzen ibili dira azken asteetan.

Ekaitza elkartearen eskutik, azaroaren 1ean, ortzegunean, Baserritarren eguna izanen da. Herriko plazan eta frontoian, herriko hainbat baserritar eta ekoizleek etxean eginiko produk-

tu, azienda zein eskulan erakusgai edo salgai jarriko dituzte. Goiz polita pasatzeko modua izanen da oraingoan ere, hamazazpigarren urtez antolatu den tokiko azoka honetan. Zortzigarren gazta lehiaketa ere egingen da aurtengoan eta herrian egiten diren gazta onenak dastatzeko aukera izanen da.

Azaroaren 3an, larunbata, bi ekintza izanen dira. Batetik, arratsaldeko 06:00etan eta Baskulan, *Urte berri on, Amona* filme emanaldia izanen da. Arratsean berriz, Hodei Barroso eta Sustrai Colina bertsolariekin afaria izanen da Ekaitza elkartearen.

Hurrengo asteburuarren atarian, azaroaren 6an, astearte, 19:30ean Zahar Txokon, Goizuetako gazteek beren herriko txondorraren



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskulan ikastaroan ari dira emakumeak

Eskulan ikastaroa egiten ari den taldea dugu irudian. Arratsaldeko 06:00etatik 08:00ak bitartean eta asteartero biltzen dira. Aitzineko alean aipatu nituen emakume taldera, Itsaso eta Maribel ere batu dira.

inguruko bideoa eta solasaldia eskainiko dituzte.

Azkenik, azaroaren 8an, ortzegunean, Nafarroaren konkistari buruzko bi hitzaldi emanen ditu Fermin Sanchez Aburuzak: 18:00etan hurrei zuzendutakoa izanen da eta 19:00etan, DBHtik aitzinera ikasten duten gazteentzat eta helduentzat izanen da. Solasaldiak irauten duten bitartean, haurrak zainduko dira.

Udaleko bandoak

Urri hasieran, udale-

txetik zenbait dei zabaldu ziren eta hilabete osoan aukera izan da mezu horie erantzuteko. Hala ere, Herriko Etxetik adierazi digutez, azaroaren lehenengo astean ere bando horiek indarrean jarraituko dute.

Batetik, su egur lotea eskatzeko aukera dago eta etxe bakoitzak lote bat eska dezake. Loteak 30 euroko prezioa du. Eskera, Herriko Etxean egin behar dira azaroaren 9ra bitarte.

Bertzalde, azizien aitorpena edo apuntea

ere udaletxean egin daiteke eta kasu honetan ere, azaroko lehendabiziko astean aukera dago.

Argiteria berritzeko laguntza

Nafarroako Gobernuo Industria, Enpresa eta Berrikuntza zuzendaritzak dirulaguntzak eman ditu argiteria publikoan energia aurrezteko kanpainaren barnean. Arantzako kasuan, 131.537,18 euroko inbertsioa egin du Udalak eta 52.614,87 euroko laguntza jaso du Iruñetik, %40a.

zalain
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut

Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

Frutas y Verduras
FRANDONEA, S.L.
FRUTAK ETA BARAZKIAK

BILGEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

BIDASOA
TOLDOAK - PERTSIANAK
ESTOREAK - AUTOMATISMOAK
MOSKITERAK - KONPONKETA

T./F. 659 971 442
BERA

BEINTZAKO OSTATUA

© 948 45 00 14
orbela@alberguesnavarra.com
www.alberguesnavarra.com/beintza
31753 BEINTZA LABAIEN

ORBELA
Sonderizazioa - Alberguea

kulki
umeentzako kultur kirolak

Tel. 948 552 171
www.kulki.org

IGANTZI

BORTZIRIAK

GIZARTEA → MURRIZKETEN KONTRAKO NEURRIA

Autobusa behar duten ateraldirik ez dute eginen aurten eskolan

Ez kanpaldirik, ez eguneko irteerarik ez da eginen ikasturte honetan



gelditu baino, nahiago izan dute beren desadostasuna azaldu.

Ea denon artean indarrak batuz gure politikariei gure alde egin behar dutela (eta ez bankuen alde) gogoratzaren diegun.

Joxean ORTEGA

Murrizketen aroan gauden honetan, bereziki gogorak diren batzuk jasaten ari gara: Osasungintzan, ikerketan, Hezkuntzan eta baikoitzaren lantokian. Igantziko Eskolan aurten honen kontra egiteko erabaki gogorra hartu dute: ikasturte honetan ez dituzte autobusa behar duten irteerarik eginen: ez kanpaldirik, ezta eguneko irteerarik ere. Neurri honekin Gobernuari presio puntu bat jarri nahi diote. Ikusteko da eragina izanzen ote duen ala ez, baina deus egin gabe

Argiteria berritzeko laguntza

Nafarroako Gobernuo Industria, Enpresa eta Berrikuntza zuzendaritzak dirulaguntzak eman ditu argiteri publikoan energia aurrezteko kanpainaren barnean. Igantziko kasuan, 6.787,42 euroko inbertsioa egin du Udalak eta 2.714,97 euroko laguntza jaso du Iruñetik, %40a.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ezker-eskuin, Sergio del Campo, Jose Luis Echechia eta Esther Iñiguez Pascal.

KULTURA → SOLASALDIA ETA KONZERTUA ESKAINI ZIREN URRIAREN 19AN

Organo eder bat izateaz harro agertu dira Beran

TTIPI-TTAPA

Organo eder bat izatearen harrotasuna izenburupean organo kontzertu-hitzaldia eskaini zen urriaren 19an San Esteban elizan. Berako organoa egin zuen Aquilino Amezuaren heriotzaren mendeurrena ere gogoratu zen, bidenabarkoan, Nafarroako XXVIII. Organo Zikloaren barrenean zegoen ekitaldi honetan. Lehenik, organoaren

xehetasunak kontatu zituen Sergio del Campo adituak eta gero kontzertua eskaini zuen Jose Luis Echechia, Esther Iñiguez Pascalen laguntzarekin. Emanaldia pantaila proiektioarekin osatu zen.

NAFARROAKO ORGANO ERROMANTIKO ONENA

Amezua eta Jauregik egina, Nafarroako organo erromantikorik

onena izendatua da Berako San Esteban elizakoa. Hiru teklatuko organoaren ondoan, bi mailatuko zurezko aukiteria dago, hagitz ederra. Aquilino Amezuak berak idatzia utzi zuen organoa egitekoan, «atzerritik aurkeztutako obra guziak gaudituko ez balu, organoa gibelara botatzeko eskubidea» ematen baitzion aztertu eta onartu behar zuenari.

BISITA TXARTELAK
500 ale **95€** 2013ko EGUTEGIAK*
* Kartulina berezia 400gr. koloretan BEZ barne

1000 ale **116€** 250 ale **90€** 100 ale **75€**

GAZTE OIHUA

GIZARTEA → MALERREKA

Ernadi Rock jaialdia antolatu du bigarren urtez Malerrekako Gazte Asanbladak

Azaroaren 3an ekitaldiak prestatu dituzte egun osoan

GAZTE OIHUA

«Pasa den urteko arrakasta ikusita aurten ere malerrekako gazteei ernatzeko deia luzatu diegu Malerrekako Gazte Asanbladatik, bigarren urtez Ernadi rock jaialdia antolatu baitugu. Izan ere, inoiz baino arrazoi gehiago dauzkagu

gazteok karrikara atera eta gure haserrea adierazteko. Baina, esaera harkzioen moduan umorerik gabeko iraultza, gorringorik gabeko arrautza denez, ezin humorerik falta gurean ere. Ernadi rock, gauza asko baita, baina, bereziki ongi pasatzeko egun bat da, eskualdeko gazteok elkar ezagutu eta gure harremanetan sakontzeko egun ezin hobea». Halaxe diote Malerrekako Gazte Asanbladako kideek eta

helburu horretan, egun paregabea antolatu dute larunbat honetarako, azaroaren 3rako eta hainbat ekitaldi egingen dira Santa Luzia plazan paratuko den karpian.

Goizeko 10:00etan argi soinuak izanen dira. 11:00etan Rokodromoa eta birziklapen tailerrak haurrentzat. 12:00etan aurpegi margoketa. 14:00etan animaleko bazkaria (Txartelak Titi ostatuan salgai daude). 17:00etan gazte jokuak tabernaz taber-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Gazteentzat ez ezik, haurrendako ekitaldiak ere izanen dira.

na. 21:00etan afaria berrondatearen truk. 22:30ean kontzertuak

eskainiko dituzte Afu, Bidebakarra, Kaskezur eta Garraxi taldeek.

Bandera espainarraren aurka azaldu dira Berako Gaztetxeko kideak

Berako Kaxerna Gaztetxeko kideak bandera espainiarren aurkako jarrera azaldu dute. Gaztetxetik bidalitako oharak dioenez, «Udaletxeak ahal duena egin du Herriko etxean bandera espainiarra ez jartzearen alde. Azkenik, alkatetzaren inabilitazioa izango jartzateke piper potoa ez jartzearen ordaina. Be-

raz, Berako Udala bere eraikin munizipalean herriaren gehiengoarentzat arrotza den bandera hau jartzera behartuta dago. Horretaz gain, eta mehatxu berarekin, Ikurriña jartzearen debekua ere ezarri digute».

Honen erantzunez Berako Udalak herri batzarra deitu zuen urriaren 8an, eta herriko leku

ikusgarri batean Ikurriña eder bat jartzea eta honen harira ekitaldi herrikoia antolatzea proposatu zuen. Urriaren 12rako pentsatua zegoen aurren, baimen kontuekin arazoak izan direla eta azkenean urriaren 20an egin zen ekimen hau. Kalejira herrikoia abiatu zen Berako Herriko Etxeko Plazatik Altzateko Pla-

zara eta han ekimen xume bat egin zen.

Kaxerna Gaztetxeak ekimen honetan parte hartzeko gonbidapena egin zuen, «guk ere geure Ikurriña aldarrikatzen baitugu, eta espainiar bandera arrotza baztertu». Honekin batera, eta Udalak egiten duen deialdiarekin bat eginez, aldarrikapen honekin ados izanez gero, balkoieta ikurrina zintzilikatzera gonbidatu du Gaztetxeak.

GAZTE OIHUA

Zure herriko gazte mugimendu ezberdinetako berriak hemen agertzea nahi baduzu, bidali informazioa honako helbide honetara:

ttipigazte@gmail.com

Proiektu honek badu etorkizuna

Elkarlanean gai gara eusteko.

Ekarpen asko jasotzen ari gara, baina zurea ere behar dugu.

Oraindik badugu zeregina BERRIA komunitatea indartzen.

BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko

izan zaitez **berrialaguna**

www.berria.info/berrialaguna

SUNBILLA

GIZARTEA → 85 URTE ETA URREZKO EZTEIAK

Alberto Arretxea, Miguel Manterola eta M^a Jesus Legaz omendu ditu Arkupeak elkarteak

Bittori Ibarrek
ere 85 urte bete
ditu aurten

Maider PETRIRENA

Jakina den bezala, urriaren 13an Arkupeak Elkartekoek bazkide eta omenaldien eguna ospatu zuen. Bertan, 85 urte bete edo beteko dituztenak omendu zituzten, baita 50 urte ezkondu egin dituztenak ere. Horien artean, Alberto Arretxea eta Bittori Ibarra genituen 85 urte bete dituztenak eta Migel Manterola eta M^a Jesus Legaz-ek 50 urte ezkondu. Zorionak.

URREZKO EZTEIAK

Miguel Manterola Sunbillan sortu zen, Arria etxean 1932ko martxoaren 10ean. M^a Jesus berriz 1943ko otsailaren 12an sortu zen Orreagatik hurbil,


Irati ibaiaren ertzean da goen herrixka batean, Olaldean. 1962ko abenduaren 1ean Iruñeko San Nikolas elizan ezkondu ziren eta bi seme eta alaba bat dituzte eta sei biloba (bost nekato eta mutiko bat). Seme-alabengandik hurbil bizi dira, Iruñeko Txantrea auzoan, eta ostiralero Sunbillako etxera etortzeko ohitura dute bertako familia eta lagunekin egoteko.

85 URTE

Alberto Arretxea Bertiz ere Sunbillan jaio zen, hain zuzen ere Simonekobordan baina haurra zelarik Zubizargainera joana. Hau 1927ko apirilaren 8an jaioa da. Bederatzi senide ziren osotara eta soilik bi bizi dira. 57 urte ditu ezkondu zela Rosario Iraizozekin eta denetara lau seme-alaba, 10 biloba



ARGAZKIAK: AINTZANE ARRETXEAA ETA MAIDER PETRIRENA
Goiko argazkian Alberto Arretxea ageri da, Eugenio anaiarekin. Ondoa, Miguel Manterola eta Maria Jesus Legaz senar-emazteak eta behean, Bittori Ibarra.



(5 mutil eta 5 neska) eta birbiloba bat ditu. Aldamenekobordan bizi da eta jubilatuz geroztik hortxe pasatzen du denbora baserriko lanetan.

Bittori Ibarra Agestak ere 85 urte bete ditu, nahiz eta omenaldi bestera ezin izan zuen joan, aulki gurgildunetan mugitu behar duela. Bittori 1927ko urtarrilaren 16an jaio zen. Juan Antonio iriarte Iriarte sunbildarrarekin ezkondu zen 1952ko abenduaren 29an. 1987ko urtarrilaren 15ean alargundu zen. 6 seme-alaben ama da eta 6 biloba (3 neska eta 3 mutil) eta birbiloba bat ditu.

Zorionak berari ere.



ARGAZKIA: MIKEL BERTIZ

Kilo terdiko onddo ikusgarria

Onddo hau urriaren 23an bildu zuen Mikel Bertizek. 1,510 kilo pisatzen du eta argazkian bere alaba Ekiñe agertzen da poz-pozik onddoa eskuetan duela. Ez da guttiagorako!

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



SANSIÑENA TAILERRA

%5^{eko}

DESKONTUA

olio aldatzetan




ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → UMORE ONEAN HERRITARRAK ELKARTZEKO HELBURUAREKIN

Gaztain jatea egin da aurten ere urriaren 12an

Eliz atariko arkupean egin behar izan zen euriarengatik

Mattin LARRALDE

Urriaren 12an izandua zen urtero egiten den gaztain jatea. Aurten ez da posible izan frontoian egitea euriarengatik, eta eliz atariko arkupean egin behar izan da. Urtero herritar asko hurbiltzen dira eta gaztain erretzen bi lagun aritzen dira, Baina etortzen den jendeak gauzak ekartzen ditu: ardoa, sagardoa, bizkotxoak edo tartak, azkenean denak afalduak joateko gisan.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Normalean frontoian egiten bada ere, aurten elizatarian egin da gaztain jatea.

Umore onean jendea elkartzeko du balorea eta hori lortzen da horrelako gauzekin. Urte askoz iraun dezala.

Mus txapelketa

Herriko ostatuan jokatukoak ziren larunbat honetan, urriaren 27an, Euskal Herriko

mus txapelketako finalera sailkatzeko kanporaketak. Irabazleek Aguraingo finalerako txartela eskuratuko zuten.

LAGUNTZA

'Zuk aukeratu, zuk erabaki' egitasmoaren proiektua aurkeztu du Ttipi-Ttapak

TTIPI-TTAPA

Ttipi-Ttapa Fundazioak Nafarroako Kutxa Fundazioak *Zuk Aukeratu*; *zuk erabaki* egitasmoaren barrenean bere proiektua aurkeztu du berri ere. 50.063 zenbakia du TTIPI-TTAPAREN proiektuak eta 26.600 euro eskatzen ditu.

Orain arte, Nafarroako Kutxako bezeroa izan behar zen egitasmo hauetan laguntza emateko, baina aurtetik ez. Nafarroan erroldatutako 18 urtetik goitiko guztiek parte har dezakete proiektuak aukeratzeko, ez da beharrezkoa Nafarroako Kutxako edo La Caixa bezero izatea. Nafarroako Kutxa Fundazioak 10 euro bideratu ditu aukeratzeko den proiekturako, baina garbi izan behar da diru hori ez duela norberak bere sakeletik eman behar, Fundazioak bere funtsetatik baiduz. Internetez ere egiten ahal da www.cajanavarra.com webgunean sartuta edo, TTIPI-TTAPAREN aukeratzeko baduzu, Lesakako bulegoan lagunduko dizugu eskaera egiten. 2013ko martxoaren 30a bitarteko epea dago proiektua aukeratzeko. TTIPI-TTAPAREN proiektuak gain, gure inguruko bertze zenbait erakundek aurkeztu dute bere proiektua, hala nola Xorroxin Irratiak, Xaloea Telebistak, Erreka edo Arkupeak elkarteak, etabar...



TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

EGIN ZAZU TTIPI-TTAPAREN ALDE

PROIEKTU ZENBAKIA 50063

Zuri ez zaizu ezer kostako guri 10€ laguntza emanen digute



10€

- Nafarroan erroldatutako 18 urtetik goitiko guztiek parte har dezakete
- Ez da beharrezkoa Nafarroako Kutxako edo La Caixa bezero izatea
- Nafarroako Kutxa Fundazioak 10 euro bideratuko ditu aukeratzeko den proiekturako.
- Internetez egiten ahal da www.cajanavarra.com webgunean sartuta edo, TTIPI-TTAPAREN aukeratzeko baduzu, Lesakako bulegoan lagunduko dizugu eskaera egiten eta zalantzarik baldin baduzu deitu 948635458 telefonora

ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI
2013 CAJA NAVARRA

KULTURA → ERREKA ETA MENDAUR GURASO ELKARTEAK LANEAN

Zine emanaldiak azaroaren 4an hasiko dira Guraso Elkartearen eskutik

Neguko ludoteka ere martxan paratuko dute ikasturte honetan

TTIPI-TTAPA

Erreka eta Mendaur guraso elkarteak azaroaren 4an (igandea) aurtengo zine emanaldiak hasiera emanen diete bi pelikula eskainita: 16:30ean *Tintin* eta 18:30ean *American Pie* 8. Lehendabiziko hitzordu honekin sei hilabetezko programazioa martxan jarriko dute guraso elkarteek. Hamabortzerro, eta apirilaren bukaera arte, luzatuko dira emanaldiak eta, aurreko denboraldian bezala, sarrerareuro batekoa izanen da. Denboraldi osoan zehar hogeita lau pelikula pantailaratuko dira; Eguberrietan eta Aste Santuan emanaldi bereziak antolatuko asmoa dute. Emanaldi hauek burutzeko Udala eta Burrunba taldearen lagun-



ARGAZKIA: ZALDUA

Ttikienak ere futbolean

Aurten ere hainbat talde zelairatuko du Doneztebe Futbol Taldeak. Benjamin mailako neska-mutikoak lehen aldiz ariko dira futbol-8ko ligan.

tza izanen dute aipatutako elkarteek.

Zineaz gain, bi guraso elkarteek neguko ludoteka bat martxan paratuko dute ikasturte honetan. Heldu den azaroan 7an (asteazkena) hasita eta Aste Santua bitarte, asteazkenero hainbat kultur ekitaldi bideratuko dira: birziklaje tailerrak, eguberrietako tailerrak, ipuingintza tailerrak, trukaketa tailerrak... Ekimen honen barre-

nean ere, azaroaren 17an (larunbata), 18:00etan Leitzako Xagu antzerki taldeak *Agur, Manhattan* antzezlan taularatuko du Doneztebeko zine aretoan. Azaroko eskaintza kulturala borobiltzeko bertze hitzordu garrantzitsua burutuko da hilaren 21ean (asteazkena) Doneztebeko liburutegian eta Iñaki Zubeldiak idazlearen eskutik. Zubeldiak eskainiko duen ipuin emanaldia

Malerekako Mankomunitatearekin batera antolatu da. Ipuin kontaketa bi emanaldi izanen ditu: 17:00etan haur hezkuntzakoentzat eta 18:00etan 6 urtetik 9 urte bitartekoentzat. Tailer, antzerki emanaldi eta ipuin kontaketa hauen helburua herriko eskaintza kulturalari bultzada ematea eta haur eta gazteen artean hainbat balore eta trebezia lan-tzea da.

ERREKA

Eskubaloitaldean aurkezpena hilaren 10ean

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 10ean Errekako Eskubaloitaldean aurkezpena egingen da. Egun horretan jubenilak 16:30ean arituko dira, eta seniorrek 18:00etan Ardoi-ren kontra jokatuko dute. Norgehiagoka hau akitzean talde guztien aurkezpena egingen da. Aurten 7 talde ditu Errekak: seniorrak, jubenilak, infantil mutilak, infantil neskak, alebin mixtoa, aurrealebin neskak, eta benjamin mutilak. Errekak Nafarroako Kutxako *Zuk Aukeratu; zuk erabaki* egitasmoaren barrenean bere proiektua aurkeztu du berriz. Gai honek garrantzi handia du elkartearen etorkizunerako, ekitaldi aunitz finantziatzeko balio baitu.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713



PRIM, c.b.

Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea · Tel-Fax: 948 625206 · BERA
Colon Pas. 6 - atzea · Tel-Fax: 943 633050 · IRUN

ITUREN

BESTAK → AZAROAREN 8TIK 11RA

Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du Aurtizko bestetan

San Martin egunean aizkora apostua jokatu da

Arkaitz MINDEGIA

Lau eguneko besta borobilak izanen dituzte Aurtizen, egitarau zabalera prestatu baita San Martinetarako.

AZAROAK 8, ORTZEGUNA

- 17:00etan altxaferua, beste hasiera emateko. Ondoren, herriari buelta emanen zaio herriko trikitilari eta txistulariekin.
- 17:30ean haurren joquak izanen dira frontoian. Ondoren berendua. Ohitura den beza-

la, Pazi zopak izanen dira etxetan.

- 22:30ean mus txapelketa egingen da, Aurtizko ostatuan. Parte hartu nahi duenak momentuan apuntatu beharko du. Ondoren trikipotea.

AZAROAK 9, ORTZIRALA

- 10:00etan argi-soinua herriko txistulari eta trikitilarien eskutik.
- 12:00etan aizkora apostua: Ander Erasun-Joxemari Olasagasti.
- 14:00etan herri bazkaria izanen da elkartean, Xebaxtian Lizaso eta Andoni Egaña bertso-lariekin. Bazkalondoko giroa Joxe Anjel akordeoilariak alaituko du.
- 00:00etatik aitzinera



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Larunbatean trikitixa jaialdia eskainiko dute aurten ere trikitilari eta panderojoleek.

dantzaldia JOXE ANJEL akordeoilariarekin.

AZAROAK 10, LARUNBATA

- 10:00etan argi-soinua herriko txistulari eta trikitilarien eskutik.
- 11:30ean herriko gaztetxoaren arteko pilota partiduak.
- 17:30ean trikitixa jaialdiari hasiera emanen diote, herriari kalejiran buelta emanen. Ondotik, frontoian emanaldia eskainiko dute.
- 00:30ean GOZATEGI musika taldearen kontzertua izanen da. On-

dotik, TRIKIDANTZek segituko du giroa alaitzen.

AZAROAK 11, IGANDEA SAN MARTIN EGUNA

- 10:00etan argi-soinua herriko txistulari eta trikitilarien eskutik.
- 11:00etan Meza Nagusia San Martinen oho-rez.
- 12:00etan Ibintza Kultur Taldekoen dantza emanaldia izanen da.
- 18:00etan aizkora apostua: Martin Telletxea, Xegone eta Migel Anjel Telletxea. On-

AIZKORA APOSTUA

Martin Telletxea, Xegone eta Migel Anfel Telletxea ariko dira San Martin egunez, arratsaldeko 18:00etan jokatu daen aizkora apostuan.

dotik, OIHANA ETA OIHANA trikitilarietara emanaldia izanen da. Beste emateko, ostatuan patata tortilla eta postre lehiaketa, trikitilarietara animatuta.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 12 ETA 13AN

Ekitaldi guziak burutu eta giro ederrean joan zen Euskararen Eguna

Herriko dantza luzea berreskuratu zuen hogei laguneko dantza taldeak

Fermin ETXEKOLONEA

Ederki joan zen herriko gazteek antolatutako Euskararen Eguna, programatutako dena bete baitzen.

Urriaren 12an, eurari aurre eginez, 8 lagunek egin zuten Makilipurdiko buelta, gotorlekuaren aztarnak ikusiz. Errandonea ostatuan pintxoak jan zituzten bueltan. Arratsaldean, 17 lagunek parte hartu zuten pintxo lehiaketan. Sagrario Etxekolonea izan zen irabazle. Hitzaldia ere eskaini zuen Bixente Serrano Izkok Nafarroako konkistari buruz eta Juainas Paulek herriko historiaren inguruan.

Mus txapelketan 20 bikote bildu ziren. Iturango Aberri eta Tomax izan ziren txapelak eta azpitxapelak herriko Leire eta Arantxa Mariezkurrena ahizpak. Hirugarren, Zubietako Josetxo eta Martxel Elizal-

de osaba-ilobak izan ziren. Gauez, rock kontzertua eskaini zuten Mattin, Manex eta Beñatek.

ESKULANGILEAK, DANTZA, BERTSOAK, ETA BESTE GAUZA UGARI EGUN HANDIA

Urriaren 13a, larunbata izan zen egun handia. Kanpoko jende askorik ez zen ibili, baina egun polita atera zen. Josu eta Kattalinekin lan handia egin zuten serigrafia tallerrean. Dantza taldea ere ongi, 20 bat lagun ibili ziren eta Zubietako Dantza Luzea plazaratu zuten. 14 eskulangileren lanak ikusgai izan ziren, ohikoez gain, Elgorriagako Maria kanutilloekin, Barrakiloko Patxi, berak jositako bufanda eta txapelekin... Pentako Markosek ere sagardoa nola egiten den erakutsi zuen. Bertso bazkarian ere jende andana bildu zen, 80 heldu eta 14 haur. Miren Amuriza eta Aitzol Barandiaran ederki aritu ziren mahainguruan, baita ondoko bertso-poteoan ere. Joaldunak ez zeuden programan baina bere borondatea erakutsiz, joareak jo zituzten goize-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Hainbat irudi utzi zituen Euskararen Egunak. Nabarmenena, beharbada, hainbat urteren ondotik berreskuratutako dantza luzearena. Jendeak txaloz eskertu zuen 20 dantzarien ahalegina. Bertso bazkarian kasik ehun lagun bildu ziren eta bazkalondoan, ipuin kontalariak, berendua eta karaokea ere izan ziren. Eguna borobila!

an. Bi ipuin kontalari, haurrentzako berendua, Gabenarekin dantzaldia, haurrendako karaokea... Hainbat ekintza izan ziren eta azken honetan, gurasoek egingo lan handia eskeretzekoa da.

GAZTAREN PISUA ETA URDAIAZPIKOAREN ALTUERA

Gaztaren pisua asmatzeko lehiaketa Karmele Mujikak irabazi zuen, xuxen xuxen asma-

tu zuen (1,010 kilo). Urdaiazpikoaren apustua egin zen, baina honetan pisua asmatu ordez, zer alturatan zintzilikatua zegoen asmatu behar zen. Beñat Etxekoloneak irabazi zuen.

Askatu ska taldeak kontzertua eskaini zuen, dantzaldiaren atsedendian. Mattin eta Manex herritarrak ere hor ari dira.

Lan txukuna egin zuten gazteek eta animo hurrengorako.

FLASH

Jaiotza Anteskobordan

Urriaren 11n jaio zen Maialen Hualde Goñi, Anteskobordako Txomin eta Maddiren alaba. Zorionak hiruei, baita Xanti eta Mari Karmen aitaxi-amatxiei ere. Ea baseerriak hurrez betetzen hasten direnaren seinale den.

Malerreka kantuz

Azaroaren 3an, larunbat eguerdian, Malerreka kantuz ekimenaren saio berri bat eginen da Zubietako plaza inguruan. Jendea animatu dadila kantuan ateratzera

ttipi-ttapa

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

inprimitzen ditugu

GIZARTEA

ESKUALDEA → URREZKO EZTEIAK ETA 85 URTEKOAK OMENDU ZITUZTEN

10 senar-emazte eta 30 ohorezko kide omendu ditu Arkupeak elkarteak

Fernando ETXEBERRIA

Urriaren 13an besta egun ederra izan zuten Arkupeak erretiratuak Elkarteko kideak. Donetztebeko elizan meza aditu eta gero, urtero bezala, omenaldien txanda izan zen. Urrezko ezteiak ospatu zituzten senar-emateak eta 85 urte bete dituztenak zoriondu zituzten eta Bazkidearen Eguna ere egin zuten. Gero bazkaria ederra dastatu zuten eta eguna dantzaldiarekin akitu zuten. Guzira 637 lagunek parte hartu zuten ospakizunean.

Bi ekimenak egun berean egiten zen lehen aldia zen. Orain arte, Bazkidearen Eguna urte hondarrean egin izan da, eta omenaldiak ekainean. Aurten, ordea, biak batera urrian egitea erabaki zuen Arkupeak Elkarteak. Batetik, Nafarroako jubilatuek elkarrekin aunitzen artean zabaldua dagoen ohitura hemen ere ezarri nahi dutelako egin dute aldaketa hau. Bertzetik, berriz, zuzendaritza talde berriak urtean hildako bazkideak gogoan eduki nahi zituelako.

URREZKO EZTEIAK ETA 85 URTE

50 urte ezkondurik bete dituzten senar-emazteak hauek dira: Vicente Fagoaga eta M^a Cruz Tolosa (Bera); Migel Dagerre eta Xole Iturbide (Erratzu); Migel Hita eta Francisca Etxeberria (Igantz); Hipolito Iparragirre eta M^a Mar Sanzberro (Igantz); Teodoro Irigoien eta Kon-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

1962ko antzeppenaren une bat eta bertan aritu zirenen argazkiak.

txita Etxebeste (Igantz); Jose Zurriarain eta Anunciacion Babaze (Irun); Miel Barriola eta Feli Aierdi (Leitza); Enrique Bildarraz eta M^a Cruz Zabaleta (Leitza); Eusebio Maritorea eta Isabel Uharte (Leitza); Migel Manterola eta M^a Jesus Legaz (Sunbilla). Denek bere oroigarria jaso zuten eta argazkiak atera zituzten senideekin.

Aurten 85 urte bete edo beteko dituztenak, berriz hauek izan dira: Aresoko Pilar Arraiago Hernandorena, Arizkungo Francisco Jabier La-

rralde Ustariz, Berako Josefa Agirre Irazoki, Pepita Barandiaran Aldasoro, Vicente Fagoaga Barberon, Pakita Irazoki Berasain eta Migel Martinez Laskurain, Donamariako Jacinta Inda Arregieta Leon Lasaga Irazoki, Doneztebeko Esperanza Olai-zola Caminoa eta Maritxu Oskoz Sarratea, Erratzuko Migel Dagerre Larregi, Etxalarko Perpetua Arburua Iturria eta Maria Zubieta Arburua, Goizuetako Milagros Lujanbio Loiar-te, Igantziko Francisca Etxeberria Telletxea,

Irungo Elena Gallego Miguel, Lucia Otaegi Arrieta eta Luis Sorzabalbere Otxoteko, Ituren-go Hilaria Mutuberria Martikorena eta Mikaela Etxeberria Hernandorena, Lesakako Bittori Pikabea Altzugarai eta Anastasio Ramos Rueda. Oizko Maria Zelaizta Saldias, Oronozko Sagrario Etxandi Uterga, Sunbillako Alberto Arretxea Bertiz, Urrozko Josefa Etxegia Terrieta, Zubietako Julia Uhalde Indakoetxea eta Zugarramurdiko Juan Bidegain eta M^a Jesus Gainza.

Mendi taldearen urteko besta

Arkupeak elkarteko mendi taldeak ere urteko besta egin zuen urriaren 17an, Lezeta jate-txean. Aurretik, mendi ibilaldia egin zuten Otsondo inguruan, haize bortitza lagun zutela.

Arkupeak elkarteko mendi taldea joan den urtean hasi zen lanean, zuzendaritza batzordea berri zenean, baina 15 urte baino gehiagoko historia dauka. Zehazki, 1996an Baztango Santiago Bidea egin zuen Arkupeak elkarteak, Dantxarinetik Iruñera. 14 laguneko talde batek, lehengo bidearekin segitu zuten Barrankan barna, Ziordia bitarte. Halako arrakasta izan zenez, Iruñetik Santiagora bidearekin segitzea erabaki zuten, baina Arkupeak elkartearen barnean ezin zenez egin, mendi talde berria sortu zuten: Goiz Mendi Taldea. Lau urtetan hiru aldiz egin zuten Frantziako Bidea eta 2011n Kostako Bidea. Aragoiko Bidean ere ibili ziren. Hilabetean behin Euskal Herriko mendiren bat igotzea eta ekainean, Pirinioetara astebeteko ateraldia egitea ere erabaki zuten.

Arkupeak elkarteko junta berria osatzerakoan, elkarte barnean osatu zen mendi taldea eta hileroko ateraldiak segitzen dute. Honela, Ibar-din, Ezkurra, Leitza, Aralar, Bertiz eta Otsondo inguruan ibiliak dira eta Saioa, Txindoki, Aizkorri eta Gorbeara joateko asmoa dute.

GIZARTEA → AZAROAREN 5EAN

Duela 50 urte antzezlana euskaraz egin zutenak omenduko dituzte

Azaroko Kulturaldiko lehen ekitaldiak

TTIPI-TTAPA

Kultur ekitaldiz ederki osatua izaten da azaroa azken urteetan herrian. Aurten ere ez da gutxiago izango. Azaroaren 24an izango da Azienda Feria eguna, baina aurretik hainbat ospakizun eginen dira. Urrunago joan gabe, asteburu honetan jubila-tuentzako zenbait ekitaldi antolatatu ditu Umorre Ona elkarteak. Aza-

roaren 3an, larunbat arratsaldeko 17:00 aldera mus eta truk txapelketak jokatuko dituzte erretiratuek.

Igandean, 1962an euskarazko *Aberatsak olaxe egiten* antzerkia taularatu zutenei omenalditxo bat eskaini nahi zaie. 11:00etan meza izanen da, segidan pilota partidak eta gero, eguraldiak laguntzan badu, plazan eginen da omenaldi ekitaldia. Bestela, Umorre Ona elkartean eginen da. Aktore lanean aritu ziren gehienak bezalaxe, antzezla-



UTZITAKO ARGAZKIAK

1962ko antzezenaren une bat eta bertan aritu zirenen argazkiak.

na idatzi zuen On Satur-nino apeza ere bizi da eta gonbidatua dago omenaldira. Gero, bazkaria izanen da. Bazkalurra eta bazkalondoa girotzen, Xabier Legarreta eta Unai Agirre bertsolariak arituko dira.

Baialtzinikin...

Urriaren 21ean Patxi Puñalek gainditu zuen arte, Joxemanuel Etxeberría goizuetarrak zuela Osasuna futbol taldearekin partida gehien jokatzearen marka. 14 denboralditan 463 partida jokatu zituen, 1986ko urrian futbola utzi zuen arte. Halere, Osasunarekin gol gehien sartzearen errekorra mantentzen du oraindik (140).



ARANO

ONDAREA → GARAI BATEKO EZKIL JOALDIAK

Elizako kanpaiak isil ez daitezzen ikasten ari dira

Antonio *Exkerra* izan dute irakasle

Ainhoa ANSA

Elizako kanpaiak isil ez daitezzen, talde batek garai bateko joaldiak nola jotzen ziren ikasi nahi izan dute.

Antonio *Exkerra* da aspaldi honetan, San Migelen etorrerarekin batik bat, elizako kan-

paiak jotzen aritzen dena eta bera izan zen urriaren 13an egindako ikastaro edo tailerrean irakasle. Argiekila, amezkila, angelusa eta kedaz gain, hilezkilak eta sua edo ekaitzaz ohartarazteko joaldiak ohikoak izaten ziren orain dela urte batzuk. Batzuk egunerokoak izaten ziren eta beste batzuk egoerak eskatuta-koak, noski. Hauek kon-

tuan hartu ziren ikastaroan baina lanik handiena eman zutenak jai egun bereziak edo hauek bezperaz zireneko joaldiak izan ziren, hauek baitziren landuenak behar bada.

Ikastera gerturatu ziren hiruzpalau lagunez gain, kuriositatea asetzeko asmoarekin azaldu zirenak eta plazan edo beste edonon entzuten egon zirenak ere



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Elizako kanpaiak jotzen ikasten aritu zirenak.

aipatu behar. Buelta bat emanez gerturatu ziren bisitariak ere herrian zer gertatzen ote zen galdezka jarri zituzten.

Ikastaroan parte hartu zutenak gustora galditu ziren ikasitakoare-

kin eta irakaslea ere beste horrenbeste. Orain, kanpandorreko soka berria lehengoa adina gastatu arte kanpaiak astinduko dituen norbaiten jarraipena ziurtatu izatea espero dugu!

LEITZA

MANKOMUNITATEA → HONDAKINAK

Puntu garbia jarriko dute Arekozubiko ondoan

Goizuetan ere jarriko dute eta gainerako herri txikietan furgoneta ibiliko da egun jakinetan

JM BARRIOLA

Mendialdea Mankomunitateak, herrian puntu garbia jarriko du martxan. Hortarako azaroan, etxetxo bat ezarriko dute Arekozubiko ondoan. Bertara arriskua eragin dezaketen edukiontzia edo bereziak diren hondakinak bota ahal dira. Besteak beste spraiak- aerosolak, X batekin azaltzen diren garbiketako produktu toxikoak gordetzen dituzten ontziak, tonerrak eta inprimitzeko kartutxoak, pinturak eta berniz poteak, motorretako olio latak, fluo-reszenteak, kontsumo txikiko bonbillak. Ontziak itxita bota behar dira etxetxoak izan diren zulo ezberdinetan. Ontzi hauek gain, cd-ak eta kasetteak, etxetresna txiki-

ak, barazketako produktuen botilak, pilak eta bateriak, eta baita merkurioa duten termometroak botatzen ahal dira. Horrelako hondakinak bereiziz, ingurugiroa zaintzeaz gain, bizi kalitatea handituz joatea dute helburu, birziklatzearen inguruan aurrerapauso handia eginez herrian eta eskualdean. Leitzaz aparte Goizuetan eta Lekunberrin ere jarriko dituzte horrelako puntu garbiak. Gainerako herri txikietan furgoneta berezi bat ibiliko da egun jakinetan horrelako hondakinak biltzen.

Saski bete intxaur liburuak kalean

Patziku Perurenaren *Saski bete intxaur* liburua salgai dago liburutegietan. Saiakera honetan esaera zahar hitz jokoak, inguruetan kontatutako historiotxoak eta horrelakoekin jolas egiten du idazleak, bere ekarpenekin osatuz. Alberdania argitaletxeak pasa den maiatzean argitara eman zuen liburua.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Hirigintzako altzariak berrituko dituzte

Goio enpresak herriko kaletako altzariak berrituko ditu, Udalak, hirigintzako altzariak jartzeko diru laguntza lortu ondoren. Eserlekuak, paperontziak, barandak eta plazarako pibote berriak jarriko dira. Hauetaz gain kelatako aparkalekuak eta seinalizazioak, *zebra marra* margotuko dituzte, zaharberrituz. Lanen aurrekontua 23.000 euro ingurukoa da eta %60ko laguntza eskuratuko da.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Zinema denboraldia hasi da

Urtero moduan hasi da zinema denboraldia. Urriaren 26an *Intocable* filma eskaini zuten. Azaroaren 2an eta 4an 19:30ean *Declaracion de guerra* izanen da. Azaroaren 9an eta 11n, berriz, *Moonrise Kingdon* filma jarriko dute. Beti bezala, ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

Faktura orriak eta kartazalak

inprimitzen ditugu

Eskatu informazioa:

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

fakturak / orriak

1.000 A4 → 86€
koloretan, 90 g. BEZ barne

kartazalak

1.000 ale → 107€
zuri beltzean BEZ barne

GIZARTEA → EUSKARAREN EGUNEAN IKUSGAI

Herriko ondarea berreskuratzeko argazki lehiaketa antolatu da

Azaroaren 26a arte aurkeztu daitezke lanak Udaletxean

Juana Mari SAIZAR

Argazki lehiaketa antolatu da herriko ondareak berreskuratzeko asmotan. Areson ezezagunak diren herriko ondareak aurkitu nahi ditu udalak, hau da, herriar batzuk ezagutu ditzaizketen arren, orokorrean ez dakizkigunak. Horretarako argazki lehiaketa martxan jarri da, eta hiru gai daude argazkiak ateratzeko: Ondare naturala izatea, ondare arkitektoniko edo historikoa izatea eta herriko paisaiak.

Parte hartzaileek irizpide hauek bete beharko dituzte; alde batetik pertsona bakoitzak bost argazki aurkeztu beharko ditu eta gutxienez gai bakoitzetik argazki bana egon beharko du. Bestalde argazki-

ak Aresokoak izan behar dute, edo Areso ingurukoak, herri gunitik oinez joateko distantzi batean ateratakoak.

Azaroaren 26 arteko epea dago argazkiak atera eta udalera bidaltzeko, udaletxeko korreoa bidali beharko dira hain zuzen. Argazkiak Euskararen Egunean ikusgai egongo dira eta bertan aukeratu da argazki irabazlea, sarria ere izango da beraz hasi kamerak astintzen!

Ione Lozanoren urtebetetzea

Ione Lozanoren urtebetetzea urrian dela eta, bere lagunek elkartasun afarie antolatu zuten Pake Toki elkartearen. Arratsaldean denek bildu eta argazkie aterara zuten oroigarri, ondoren afarie 100 lagun inguru bildu ziren eta bukaeran sabela ongi bete ondoren, nekaezinak dirudi zuten *La jodedera* taldea alaitu zu-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Ikastaroak eskolako gelan eta gimnasioan

Psikomotrizitatea, trikitixa eta pandero ikastaroak martxan jarri dira eta eskolako gelan eta gimnasioan ematen dira astean behin, astelehen eta ostiraletan.

en afari ostea, giro ederra sortuz.

Olazabal

Mikel Olazabal, pilota-

ria, bigarren mailako lauterdiko txapelketan parte hartzen ari da, eta dagoeneko final laurdeneko ligaxkan sartuta da-

go. Urriaren 22an Tolosako Beotibarren 22 eta 5 irabazi zion Apezteari. Ea horrela jarraitzen duen!

FOTO MENA ELIZONDO

ttipi baxartela

% 10^{eko} DESKONTUA
kopia digitaletan

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
INSPECCION, AUDITORIA Y CERTIFICACION
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. · Banarta, 8 - 23 pabilioia · LESAKA · Tfnoa: 948 631 536 · Faxa: 948 631 550

BAZTAN

KEZKA → EGOERA SOZIO-EKONOMIKO ETA LANGABEZI TASA ALTUARENGATIK KEZKATUTAKO JENDEA

Baztango Garapenerako Elkartea aurkeztu dute

Zortzi herritako 175 pertsona biltzen ditu oraingoz, baina ateak zabalik ditu

TTIPI-TTAPA

Baztango Garapenerako Elkartea aurkeztu zuten urriaren 22an Elizondoko Arizkunenea jauregian. Elkartea hau herritar ekimen bat da, alderdi sozial desberdinetako baztandarrek (enpresari txikiak, autonomoak, erretiratuak, ikasleak, langabeak, etxeko andreak...) bultzatua. Baztango herri ezberdinetako pertsonak dira ekimen hau aitzinera eramane dutenak, egoera sozio-ekonomiko txarragatik eta langabezi-tasa altuagatik, kezkatuta daudelako.

Elizondoko ekitaldi publikoan, José Javier Agirre Elkartearen lehendakaria eta Maite Sánchez Ruiz, idazkari-bozeramailea aritu dira. Ekitaldian ere, zuzendaritza kontseiluko hainbat kide izan dira eta elkarteko hainbat bazkide, tartean Ramon Sobrino, Alejandro Martín, Carmelo Berro, Arantza Agire, Ander Mariezkurrena eta Saulo Ruben Santerbás. Guztien nahia, egoera zail honetan irtenbideak bilatzea eta benetako garapen eta aktibazioa lortzea da.

José Javier Aguirrek eta Maite Sánchezek Baztango Garapenerako




ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Urriaren 22an egin zuten aurkezpena Elizondoko Arizkunenean.

ko Elkartea sortzeko eman dituzten pausak azaldu zituzten. Elkartearen estatutuek dioten moduan, Baztanen sortzen diren ekimen eta proiektuak bultzatu, defendatu eta lagunduko dira. Izan ere, kanpotik datorren edozein proiekturen alde lan egiten da, Baztango biztanleriari garapen ekonomiko eta soziala ematen badio. Gainera, proiektu guztiek baldintza legalak eta arategi laboralak bete behar dituzte, hala nola, ingurugiroa zaindu ere.

Asmo hauek guztiak bultzatzeko Elkartea apolitikoa eta askotarikoa sortu da, kezka hauek dituzten balleko pertsona guztiei irekia

Abuztuaren 20an, bazkide talde batek proiektua eta honen helburuak aurkeztu zizkion udal ordezkari batzuei. Hurrengo asteetan balleko herri ezberdinetan egiten diren bi-



ESALDIA

«Hemen izan zezaketen lan baten bila kanpora gan behar duten gazteak ikustea ematen dit min gehien; bere lan bizitzaren hoberenean langabezian eta lanerako aukerarik gabe»

José Javier AGIRRE
Elkarteko presidentea

leretan segituko dute proiektuaren aurkezpenarekin. Gaur egun, 8 herritako 175 pertsona bildu dira ekimen honetan. Elkartearen asmoa kopuru hau handitzea

da, Baztango herri guztietako bizilagunekin.

Elkartearen parte izateko Baztanen bizi, lan edo errolatua egotea beharrezkoa da. Elkartearekin bat datozen eta bizilagunei aberastasuna eta lanpostuak ematen dizkien proiektu enpresarial guztien alde agertu eta defendatzeko konpromisoa hartzea derrigorrezkoa da ere.

Baztango Garapenerako Elkartea ezagutzeko lanek aitzinera segituko dute eta bertze ekintza batzuk ere egiten dira, hala nola aldi behingo bilera informatiboak, argitalpenak hedabideetan, Baztango eta Nafarroako erakundeekin solasaldiak eta Baztango bertze elkarrekin lankidetzak.

Informazio gehiago eskuratzeko, elkartearen webgunea bisitatu dezakezue: www.desarrollobaztan.es

GIZARTEA

Barraskiloak kontsumo elkartea lanean hasi da

TTIPI-TTAPA

Barraskiloak kontsumo elkartea bere burua aurkeztu zuen urriaren 17an Elizondoko Arizkunenean egin zuen batzarrean. Denera 25-30 lagun hurbildu ziren egitasmoaren berri izatera eta sustatzaileek aipatu zuten, oraino eratze fasean dagoen egitasmoa da, hortaz, bazkide egiteko asmoa duten guztiekin adostu beharrezkoa. Kontsumitzaileen eta ekoizlearen arteko harreman zuzena bulkatuko dute, betiere, produktu ekologikoak eta sasoiak eskuratzeko. Modu berean, eskualdean ekoizten ez diren produktuak ahalik hurbilenetik ekartzen saiatuko dira. Dagoeneko lokal bat hitzartu dute, Oronoz-Mugairin eta taldea abiarazteko bazkideak bilatzen ari dira, izan ere, proiektua aitzinerat ateratzeko, astero hiru-lau orduz liberaturik egonen den pertsona kontratatzea aurrikusi baita. Ondoko batzarra abenduaren erdi aldean egiten da eta orduan eztabaidatu era erabakiko dira kontu guztiak. Elkartea, hasieran, eskualdekoa izanen da, hau da, Baztan-Maleurreka-Bortzirak mailakoa; denborarekin, indartu ahala, bailara bakoitzean kontsumo elkartea bana izatea litzateke helburua.

Izena emateko: barraskiloak@gmail.com edo telefono hauetan: 678445521 (Ruth) edo 625106426 (Felix)

UDALA → 10.560 EUROKO INBERTSIOA EGIN DA

Agozpeko zentrala arautegira egokitzeko inbertsioak egin ditu Udalak

laz 892.149 kw produzitu zituen eta 78.000 euro jaso zituen herriak

TTIPI-TTAPA

Agozpeko zentral hidroelektrikoa Balleko udalaren jabegokoa da eta, ondare publikoa mantentzeko eta hobetzeko, arautegirat moldatzeko inbertsio desberdinak egin ditu. Alde batetik, Kantauri Isurialdeko Konfederazioaren eskariari erantzunez, errekararen emari ekologikoa bermatzeko

sistema paratu eta zentralaren gaineko aldean dagoen presa erregistratu eta arriskuaren arabera klasifikatuko da; lan hauek denera 6.600 euroko aurrekontua izanen dute. Modu berean, errekararen emaria neurtzeko kaudalimetroa paratu da eta horrek 3.960 euroko kostua izan du. Inbertsio horien helburua, erran bezala, zentrala arautegirat moldatzea izan da. Gainerakoan eta ohiko mantentze lanei dagokionez presa hostoz garbitu da eta ubidearen ingurua desbrozatu da.

Agozpeko zentral hidroelektrikoak iaz 892.149 kw. produzitu



UTZITAKO ARGAZKIAK

Lekarozko ikastetxeko ikasleen greba arrakastatsua

Lekarozko ikastetxeko ikasleen greba arrakastatsua izan zen urriaren 16an. 50 gazte inguru bildu ziren Nafarroako gobernuak hartutako erabakien kontra dandela azaltzeko. Hezkuntza arloan izandako murrizketek eta diru-laguntza eskasiek, ikasleen etorkizunean eragiten dutela argi daukate. Haien desadostasuna plazaratzeko, pankarta lehiaketa bat antolatu zuten; taldeetan banatu eta buruari eragin eta gero, esaldi mamitsuak idatzi zituzten. *Etorkizuna zuen esku? aski da!* eta *Murrizketak bai, baina politikan* gisako leloekin bete zuten Elizondoko herria. Horren ondoren, trikitixa eta pandero soinuekin Elizondoko plazara hurbildu ziren eta bertan, gaur egungo egoeraren hitzak erabiliz, imintzio jokuan aritu ziren. Akitzeko, orri txurietan, bakoitzak, krisi egoerari buruz pentsatzen duena adierazi zuten eta horiek, Elizondoko ixkin guztietan itsatsi zituzten.

zituen eta ekoiztutako kopuruarekin udaletxeak 78.000 euro jaso zituen. Ekoizten den elektrizitatea Iberdrolari saltzen zaio eta zentralaren ekoizpenaren

eta merkatuko prezioen arabera, udalak jasotzen duen ordainean aldaketak izan daitezke.

Bertzalde, aipagarria da abuztuaren 14tik urriaren 15erat ur-eskasia-

gatik zentrala geldirik egon dela; halako geldialdiak arruntak izaten dira eta errekararen emariaren arabera luzeagoak edo motzagoak izan daitezke.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDAZKEN-NEGUKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

BAZTAN

GIZARTEA → URRIAREN 18AN EGIN ZUEN BILKURA

Osasun Kontseilua lehen aldiz bildu da 1990. hamarkadatik

Kontseiluaren helburuak eta funtzionatzeko modua zehaztu zituzten lehen bilkuran

TTIPI-TTAPA

Baztango osasun kontseilua, 1990. hamarkadaren hasieratik lehen aldiz urriaren 18an bildu zen. Osasun kontseilua heritarren eskubidea den osasun arreta bermatzeko, hobetzeko eta eraginkorrago egiteko bilgunea da eta, bertan, erakundeetako ordezkariak, osasuneko profesionalak, sindikatu eta herri erakundeetako ordezkariak biltzen dira.

Udal berria osatuz gero, udal gobernuaren helburuetako bat Baztan-Zugarramurdi eta Urdazubiko osasun kontseilua berreskuratzea izan da. Elizondoko osasun etxeko arduradunen eskaera ere izan da bilgune hau berreskuratzea, modu horretan, eragile desberdinek aho batez egindako eskariari erantzuna eman zaio. Uriaren 18ko bilera horretan parte hartu zuten Antonio Perez Andrés, Iparraldeko eremukozuzendariordeak; Garbiñe Elizegi, Iñigo Iturralde eta M^a Carmen Iribarren Baztango udaleko ordezkariak; Itziar Galarregi, Urdazubiko udal ordezkariak; Lazaro Daintziart Iribarren, Zugarramurdiko udal ordezkariak; Elizondoko osasun zentroko or-

dezkarigisara, Iñaki Marcos Zorroza (Elizondoko lehen arreta taldeko zuzendaria), Ana Ariztegi (Elizondoko lehen arreta unitateko erizain taldekoa), Eva Espatolero Ladrero (Elizondoko osasun zentroko gizarte langilea) eta Agurtzane Elizegi (Osasun etxeko administraria); Andone Garde (LAB), sindikatu etako ordezkari gisara eta Eguzkilore, Dizdira, Anfas eta Arkupeak elkarte etako ordezkariak. Lehenengo bilera honetan Osasun kontseiluaren helburuak eta funtzionamenduak zehaztu zituzten.

Gazte Txartela

Gazte txartela dutenei igerilekua, museoak eta musika eskolako zerbitzuetan %5-10eko beharpena egiteko eskatu zion Gobernuak Udalari, baina udalak ez du onartu. Gazte txartela duten 14 eta 30 urte arteko guztiengan izanen luke eragina neurriak eta hori ez dela neurri ekitatiboa uste du Udalak, «ez duelako gazteen egoera sozioekonomikoa kontutan hartzen». Horren ordez, pertsona bakoitzaren egoerari egokitutako ordainketa eskaintzeko ahalegina egiten dutela dio. Batzuetan egoera ekonomiko txarrean dauden familietako kideei igerilekuko abonua doan eskaini zaie edo musika eskolako matrikuletan familia ugari koei deskontua egiten zaie. Igerilekuan 14-17 urtekoek %25eko beharpena egiten zaie.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Errotaren Eguna gorabeheratsua izan zen Etxaiden...

Antolatzaileen eta Etxaideko errotako nagusiaren arteko gaizki ulertuaren ondorioz, ez zen espero bezain borobila atera aurtengo Errotaren Eguna, baina halere jende andana bildu zen Elizondoko errota inguruan urriaren 13an. Talorik eta bisita gidaturik ez zen izan bisitariarentzat, baina horren ordez, garai bateko errotei buruz Xaloea Telebistak prestatutako dokumentala ikusteko modua izan zen. Heldu den urterako lekukoa Lekarozko Etxebertzeko bordako Jose Mari Argaratek eta, beraz, Infernuko Errotak hartu du.



ARGAZKIAK: PELLO IRIARTE

...baina Gaztainaren Ibilbidea ezagutzera eman zuten

Ezpileak, garai batean gaztainak gordetzen ziren tokiak, dira Gaztainaren Ibilbideko ondare garrantzitsuenak. Gaztainen bidean, denera lau daude ikusgai. Ibilbidea Etxaideko errotan hasten da. 3.500 metroko luzera eta 130 metroko desnibela du, horregatik, familia osoak egiteko moduko bide erraza da. Inbuluzketa anaiek duela urte batzuk egindako ikerketen emaitzetan oinarritzen da ibilbidea. Ingurune honetako ekonomian eta elikaduran gaztainek zuten garrantzia agerian geratu zen ikerketa horiekin. Ibilbidea egiten duenak, lau ezpile ikusi ditzake. Gaztainak barnean sartzen ziren bere kakoxekin eta azkenik hermetikoki estaltzen ziren ez usteltzeko. Pello Iriarte historialariaren gidaritzapean egin zuten aurkezpen ibilaldia urriaren 13an eta aitzinera bisitaldi gehiago egiteko asmoa ere badute. Bidean oraindik seinaleak jarri ez dituzten arren etorkizunean jartzeko asmoa dute, bisitari eta bertakoek ezagutzeko ibilbide aproposa dela uste dutelako.

UDALA → %8tik %21ERA IGO DA

Giltxaurdi kirol instalazioetako prezioek BEZaren igoera somatuko dute aurten

Abonamendua bi zatitan ordaintzeko modua izanen da

TTIPI-TTAPA

Giltxaurdi kirol instalazioetako erabiltzaileek nabaritu dute tarifen igoera. PPren erabakiaren ondotik, %21eko BEZa ordaindu beharko dute kirol instalazioetako zerbitzuengatik. Baztango Udalak Kontsumoko Prezioen Indizearen gorakada ez du ezarri, baina adierazi dutenez, ez dute BEZaren igoera bere gain hartzerik izan. Horren ondorioz, erabiltzaileek BEZaren igoera abonamendua aukera eta ekinga desberdinetan nabaritu dute. Beraz, aitzineko urteko tarifei ez zaie KPlaren %2,60ko igoera ezarriko, baina BEZaren igoera

ra izanen dute. Orain arte zerbitzuengatik %8ko BEZa ordaintzen bazen, ikasturte honetan %21a ordainduko da.

Udaletik diotenez, beraien lehen tasunetako bat, tarifen progresibitatearen alde egitea izanen da, hau da, Pertsona Fisikoen Gaietako Zerbitzu Kontuan hartuta egoera ekonomiko estuagoa duenak guttiago ordaintzea eta egoera hobea duenak gehiago ordaintzea. Nolanahi ere, momentu honetan, bazterketa arriskuan dauden familietako kideek, zerbitzu sozialetako ongikusiarekin, kirol instalakuntzak erabiltzeagatik laguntzak lortu ditzakete. Bertalde, aurten, berrikuntza modura eta ordainketa errazteko, abonamenduak baldintzatituz ordaintzeko aukera emanen diete erabiltzaileei.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

1.800 kilo sagar jo dituzte Kirrikoketa Egunean

IKirrikoketa bestaren hamahirugarren edizioa ospatu zen urriaren 20an Arizkun, Jo ala Jo Kultur Taldeak antolatua. Gamioxarreko dolarean gerora sagardoa bihurtuko den sagarra jo zen, baina horren inguruan hainbat ospakizun egin ziren. Astotxoak euripean tiratutako organ Larrainkarri bitarte ekarritako sagarra kirrikoketa erritmoan jo eta estutu ondotik, zukua dastatzeko aukera izan zen, muztio hori kupeleratu aitzin. Hiruzpalau hilabete esperatu beharko da orain sagardoa bihurtzeko. Aurten 1.800 kilo sagar inguru ekarri dituzte Zigatik. Goizeko lana egin ondotik, ederki bazkaldu eta bazkaldoan bertze prentsaldia eman zioten sagar patsari. Eguna borobiltzeko kontzertua eskaini zuten Pottoka eta Eskortzek eta dantza izan zuten Trikidantz taldearekin.

Lizartzuko bazkalekuko iskindegia

Lizartzuko bazkaleku komunaleko iskindegi edo hesidura guztia berituko du, orain artiokoa guztiz deseginik eta urratuturik baitago. Lan honek 154.000 euroko kostua izanen du (BEZ barne). Kopuru horretatik udalak 94.000 euro ordainduko ditu eta gainerako 60.000 euroak Cederna Garalurren laguntzari es-

ker ordainduko dira. Nekazaritza azpiegiturera urteko planean onartua egon arren, murrizketa politikaren ondorioz, lan hauek ez dute Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik izanen.

Modu berean kontuan hartu behar da iskindegaren egoera txarraren ondorioz aurten baserritar guttiagok egin latak 94.000 euro ordainduko dituzte eskara-hamabortzek eta, horrela, iaz baino buru gu-

titiago izan dira; 2012an denera 29 behi eta miga, 104 behor eta pottoka eta 220 ardi sartu dituzte. Iskindegia berituta baserrietako produkzioak atxekitzeko eta irauarazteko behar-beharrezkoak diren bazkaleku komunalen eskaintza hobetuko da eta horrela baserritarrek gure ekonomiaren, gizartearen, ingurunearen eta kulturaren iraupenean duten garrantzia segurtatuko.

ANTXITONEA
Trinketea

24 logela bainuarekin · Apartakalea
Aire girotua gela guztietan · Hari musikala eta TB
Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug. 629 659 583
ARIZKUN

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

ZUGARRAMURDI

KULTURA → HERRIA AZTORATUA IBILI DA BI ASTEZ

Pelikularen grabaketa lanak finitu dituzte azkenean

Aktoreekin argazkia ateratzeko eta gauez lezeak gauez ezagutzeko aukera izan da

Koro eta Margari

Oraingoan bai, bakan utziko zaituztegu Alex de la Igleziaren pelikularen kontuekin, herrian grabaketak finitu baitituzte.

Egia erran, pelikulaz gain, bi aste hauek bertze zerbaitetarako ere baliatu dituzte hainbat jendek: alde batetik, etorri diren aktoreekin argazkiak ateratzen ahal izateko, eta beren autografoak bildu ahal izateko. Bertze aldetik, lezeak gauez ezagutzeko aukera bat izan da. Gai pasak egiteaz utzi ziren geroztik, ez da lezean gauez sartzerik, baina grabazioak zirela eta, lezeak daukaten "akerlarre magia" puntu hori ikusten ahal izan du-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Hementxe dugu Maiana Hugo Silva eta Mario Casas-ekin. Argazki hunen truke, Maianak gure sorginen historia kontakatzea eskatu omen zioten bi aktore famatu hauek. Eta hain ongi kontatu omen zioten, non begira ze argazki pulita egin zuten hiruek elkarrekin.

te gau hoietan etorri zirenek.

Xaretako zinema sasoina hazilaren 16an abiatuko da

Lehenbiziko aldiz 'Xaretako zinema sasoina' antolatu da udazken huntarako. Hazilaren erdian hasiko dira emanaldiak, eta ortzi-

rako gauetan izanen dira. Hau da programa:

- 16ean, gaueko 21:00etan, Urdazubiko eskoletan: *Bertsolari* filmaren emanaldia, eta ondotik Asier Altuna zuzendariaren mintzaldia.

- 23an, 21:00etan, Zugarramurdiko museoan: *Gartxot* filmaren emanaldia, eta Asisko

Urmeneta eta Juanjo Elordi zuzendariaren mintzaldia.

- 30ean, gaueko 20:30ean, Lurberri sarian: *Gazta zati bat* filmaren emanaldia, eta Angel Oierbideren mintzaldia.

Emanaldi bakoitzaren sartzera 4 eurokoa izanen da.

GIZARTEA

LABORANTZA → IRATI ARETOAN

20.000 bisitari bildu ditu Miarritzeko Lurrama Feriak

Frantziako laborantza ministroa ere agertu da

Franck DOLOSOR

20 000 bisitari bildu ditu aurten Lurrama feriak. Miarritzeko Irati aretoan ospatu den kalitateko laborantza jasan-

garriaren aldeko azokan senpentera aintz bildu da, bertzeak bertze laborariak eta eskoletako ikasle gazteak. Aipagarria da aurten lehen aldikoz Stéphane Le Foll Frantziako laborantza ministroa agertu dela Lurraman laborariak entzuteko eta errateko nola negoziatu nahi luketen Europako laborantza



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Milaka lagun bildu ditu aurten ere Lurrama Feriak.

politika amankomuna. Lurramako antolatzaile eta Euskal Laborarien Batasuneko buruzagiaren erranetan ezagupen

haundia da ministro bat ferian agertzea. Gogoratu Pauen dagoen prefetaren bidez aitzineko gobernu eskuindarrak

trabak eta epaiketak bertzerik ez zizkiola egiten Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarteari.

Jon Abril, Bortzirietako ordezkaria Cederna Garalur elkarteko zuzendaritzan

“Argi dago ez dela multinazional bat etorriko eskualdean 500 lanpostu sortzera, bideak bertze bat izan behar du”

Cederna-Garalur elkarteak estrategia berria lantzen hasi da eta honen berri zehatzagoa izateko, Berako udal zinegotzia ez ezik, elkarteko zuzendaritzan Bortzirietako ordezkaria den Jon Abrilekin izan gara.

Cederna-Garalurren aurtengo batzarrean hiru helburu markatu zenituzten. Zeintzuk?

Cederna-Garalurrek Nafarroako mendialdeko Udalek, sindikatu eta enpresek osatzen badugu ere, anitzetan, sentsazioa izan da urrutiko erakunde bat dela, ez dela gurea. Lehenbiziko helburua, hortaz, eskualdera ekartzea, tokian bertan bere presentzia handitzea eta bizkortzea izanen da. Horretarako, bazkideekin komunikazio biziagoa eta iraunkorragoa izaten ari gara. Bigarrenik, Cederna-Garalurrek balio behar du gure eskualdea bertze eragile batzuekin harremanetan paratzeko, dela Nafarroako Gobernuarekin, dela berrikuntza, enpresa edo sozial arloko erakundeekin, beti ere, eskualderako onura bilatuz. Eta hirugarrenik, egungo krisialdi ekonomikoari erantzuna emateko tresna izan behar du: lanpostu berriak bultzatzeko, proiektu estrategikoetarako finantziazioa lortzeko, eta funtsean, eskualdea egiteko.

Nola gauzatuko dituzue ildo horiek?

Eskualdeko diagnostikoa egitetik abiatu gara, eskualde bakoitzaren beharrak antzeman eta lehentasunak paratu ditugu. Eskualdeko udal, eragile eta norbanakoekin elkarlanean ariko gara, berebiziko garrantzia duten proiektuak bultzatuz..

Mendialdeko eskualdeetako ordezkari eta eragileekin bilerakegin dituzue. Zein helburuekin?



Jon Abrilen erranetan, «eskualderako proiektu interesgarriak izan daitezkeenak aztertzen ari gara, turismoarekin, biomasarekin eta nekazaritza ekologikoarekin lotutakoak».

Behar horiek hobeki identifikatzeko eta erantzunak emateko. Denen ikuspegia bildu nahi izan dugu, gure indarguneak eta mehatxuak ongi definitzeko. Argi dago ez dela multinazional bat etorriko eskualdean 500 lanpostu sortzera. Bideak bertze bat izan behar du, gauza ttikiak egitetik hasi behar dugu, eta eskualdean ditugun baliabideak eta bertako jendearen ezagutza probextuz: mendia aberastasun-iturri inportantea izaten ahal da, modu iraunkorrean eta ikuspegi ekologiko batekin landuz gero; turismoan gure nortasuna eta gure inguru-nearen aberastasuna txertatzen baditugu, lanpostuak sortzeko baliatu dezakegu; nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren bidetik jo beharko da... alegia, dibertsifikazio handia beharko dugu aitzinera egiteko, denen indarrak bildu beharko ditugu..

Eskualdeko diagnosis sortu eta gero zer?

Lanean ari gara. Alkaiagako enpresazentroari bultzada berria ematen ari gara,

Lesakako Udalarekin berritu dugu hitzarmena, eta autonomo berrientzat bulegoak sortu dira, autoenplegurako formakuntza bultzatzen ari gara. Eta bertetik, eskualderako proiektu interesgarriak izan daitezkeenak aztertzen ari gara, turismoarekin, biomasarekin eta nekazaritza ekologikoarekin lotutakoak. Esperientzia pilotuak paratu nahi ditugu martxan, eta horietarako finantziazioa bilatzen..

GARAPEN AGENTEAK

Arantxa Arregi,

606 43 13 57 bidaso@cederna.es

Izaskun Abril,

606 40 86 13 baztan@cederna.es

Elena Irigoien,

617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

Cederna Garalur

Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B

Orduetgia: 09:00 / 16:00

948 62 51 22

bidaso.admon@cederna.es



SENPERE

OSPAKIZUNA → NAFARROAKO HISTORIA GOGORATUZ

Senpere eta inguruetakoko 35 lagun bildu dira suaren inguruan Santa Barbaran

Noaingo gudan lapurtarrek parte hartu zuten

Franck DOLOSOR

Nafarroako historia gogoratzeko eta erreinu zaharra omentzeko su haundia piztu dute berriki Santa Barbara mendiko kaskoan herriko eta inguruetakoko 35 lagunek. Mizel Jorajuriak aipatu zuen Noaingo gudan, lapurtarrek parte hartu zutela eta konkistak hogoi-ta bortz bat urte iraun

zuela. Guda irabazi eta, bere bihotz ona erakutsi nahirik Karlos bosgarrenak erran zuen: "Barkatzen diet Nafarrei, baina ez Lapurtarrei, ez Baztangoei, ez Bortz-Hiritarrei ez eta Bertizgoei" Sua indartzen ari zen heinean, bere semearekin eta Senperen Kantuz taldeko lagunekin, Martxel Brave musikariak Nafarroako kantuak aieratu zituen: Michel Labeguerierrenak, Jean Michel Bedaxagarenak, Xabier Leterenak, eta Benito Lertxundirenak. Giro biziki atsegina piztu zen bioren



ARGAZKIA: MIXEL MENDIBURU

Senperen Kantuz taldeko lagunekin hainbat kantu eskaini zituzten.

iraun zuen besta hortan; eta sua itzalita, denak poliki poliki eta pozik etxeratu ziren, esku argiak lagun eta Nafarroa gogoan...

Kantu bat Senpere izen ofiziala izan dadin

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilurak Euskaraz bai dinamika sustatzen du Euskal Herriko hainbat herritan. Helburua euskararen toki handitzea da herriko

sektore desberdinetan, herritarrek hautatu eta antolatu ekimen desberdinen bitartez, oro har, euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzea Senperen. Herriko elkarte eta norbanakoek talde bat osatu dute eta lehen lan gisa izenpedura bilketa bat antolatu dute, Senpere herriaren izen ofiziala bilaka dadin. Izenpedura kanpaina uda aitzin abiatu zen, eta orain, bigarren bultzada bat eman nahi diote taldeko kideek. Horretarako kantu bat idatzi eta bideoz grabatu dute (vimeo.com/51432356).

Izan ere, alde batetik, euskarazko izena zuten auzo edo errekak frantsestu dituzte eta orain ez dute fitxik erran nahi eta bestetik, euskarazko izenek eta euskaraz senperarentzat duten ga-

rrantzia aldarrikatzeko, herriko izenari lehentasuna eman behar zitzaiola pentsatu dute taldeko kideek. Senperen euskaraz bizi nahi duten herritarrek badira, eta herria Senpere deitzen da, beraz galdegiten diote Herriko Etxeari euskarazko izena bilaka dadin herriaren izen ofiziala.

Izenpedurak biltzeko blog bat sortu da (senpere.wordpress.com). Senpertarrei eta Senperetik kanpoko norbanako zein elkarteei galdegiten diete izenpetzea. Horrez gain, beste herritara luzatu nahi diete gomita, izan ere, horrelako aldarrikapenak bideratzeak herri honetan euskaraz bizi nahi duten herritarrek badirela adierazteko urrats eraginkorra izanen biltzateke.



ARGAZKIA: GRAXI MUGIKA

1952an sortutako enklaseko biltzarra Ibarrondoko Ttotta ostatuan

1952an sortu diren senpertarrek klaseko biltzarra izan dute berriki Ibarrondoko Ttotta ostatu berrian. Parada izan dute 60 urtez bizi izan dituzten gora beherak aipatzeko eta elgarrekin momentu goxoa pasatzeko. Bertzalde, azaroaren 17an, arratsan, aurten 35 urte betetzen dituzten senpertarren biltzarra egiten da Ibarrunen. Lehenago Julien Fagoaga zenaren meza errana izanen da 1977an sortu diren senpertarrek gogoan baitute duela lau urte zendu zen adiskidea. Meza 19:00etan egiten da Senpereko Jondoni petrikari elizan.

Alüstiza

ttipi txartela

%10eko
DESKONTUA
30€tik gorako
gastuan

GIZARTEA → OSPAKIZUNA

Azaroaren 4ko Usoaren Bestan hainbat ospakizun eginen dira

Arratsaldean kontzertua eskainiko du Goraki taldeak

deak kontzertu bat emanen du, sartzea 10 eurotan da eta tokiak aitzinetik salgai dira Turismo Bulegoan.

Liburutegia

Liburutegian lan egiten duten 3 bolondresen lanari esker, liburu-en prestakuntza informatikoa planttan ezarria izanen da urriaren bukaeran. Horrek erran nahi du, liburu guziak ordenagailuan sailkatuak direla orain arte dena paperekin eta eskuz egiten zelarik. Bolondres andana bat lanean ari dira liburutegia leku dinamiko bat izan dadin, eskolekin harremanetan dira bakoitzaren proiektu pedagogikoei erantzuteko. 2 astetik

Joana GUERENDIAIN

Azaroaren 4an, igandarekin, usoaren besta ospatuko da Saran. Egun hori goizeko 10:30ean hasiko da mezarekin, ondotik 11:00etan usategiaren bisita (izen emaita beharrezkoa da) hitzordua plazan emana da. Ber mementuan pilota partida bat izanen da plazan eta ondotik dantzak. 13:00etatik goiti jattetxeetan usoa jateko aukera izanen da eta eguna goxoan bukatzeko 17:00etan Goraki tal-



ARGAZKIA: MARTIN GOIKOETXEA

Sarako Usoaren Kofradiaren besta ospatu zen urriaren 20an

Sarako Usoaren Kofradiak urteko besta egin zuen urriaren 20an. Hainbat kofradietako kideak hurbildu ziren herrira, elgarrekin meza aditu eta ospatzera.

behin bi bolondresak eskoletako haurrak errezibitzen dituzte. Liburu prestaketa sistema bat ere planttan ezarria izan da zahar etxeko egoilarentzat.

Bertsu afaria

Azaroaren 17ean Olhain ikastolak eta gaztetxeak bertsu afari bat antolatu dute Lur Berri gelan. 19:00etan Mikel Markezek kantaldia

emanen du urrik izanen da afarirako txartela dutenentzat bertzenaz sartzea 5 eurotan da. Afaria arratseko 20:30ean emana izanen da. Bertsulari gonbidatuak Anjel Mari Peñagarikano, Odei Barroso, Maialen Lujanbio eta Maddi Ane Txoperena izanen dira. Afarirako txartela 20 eurotan da eta azaroaren 14a arte Herriko Etxeko edantegian salgai izanen dira,

data horretatik goiti tokiak erreserbatuko beharko dira: 0559542758 edo 0673900352.

Kirol emaitzak

Urriaren 13an esku baloiko neskek Donapaleuren kontra aritu dira etxean eta irabazi egin dute 24-11. Urriaren 21ean, errugbian lehen ekipak galdu egin du Lesperonen kontra 17-8 aldiz erreserbak irabazi egin du. Urtxintxak berriz ere etxean aritu dira Orthezeko ekiparen kontra eta irabazi dute 23-18. Gure kirolariek ongi hasi dute sasoina agian horrela segituko dute!

HERRIKO ETXERIKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maixan eta Véronique
SARA

ARMUA JATETXEA
T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI

sarobe®
gozotegia okindegia
pº de eztegará 25 bajo 31780 berá (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

VENTA PEIO®
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com
Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantzarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE
Landibar
tabac | prêt a port | restaurant | super | tabac | cadeaux | maroquinerie

MONTXO OSTATVA TABAKO-BENDA
Plater konbinatuak | Ogitarkekook | Pintxoak | Menuak enkarguz
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era • Dantzarineatik 2 km.tara
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039

EZKONTZAK

Iker Ordoki Capdequi eta **Naiara Karrera Anizeto**, Lesakakoa eta Gasteizkoa, urriaren 13an Lesakan.

Ibon Elizegi Narbarte eta **Eli Salaberria Loiarde** Goizuetakoak, urriaren 15ean.



Xabier SARRATEA AZKARRAGA

Elizondon, 2012ko urriaren 8an

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza guzien gaineratik aitziberat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun lagunekin.

AMAIURKO SOKATIRAKO TALDEKIDEAK

kukuka
HARRI ARDOPA DENDAK

TXANDAL bat EROSI eta...

... futboleko **BALOI** baten **ZOZKETAN** parte hartu!!

Zazpigerutze, 1 DONEZTEBE • 948 450 252

SORTZEAK

Maialen Hualde Goñi, Zubietakoa, urriaren 11n.

Maddalen Almandoz Ansalas, Zugarramurdikoa, urriaren 19an.

Olaia Hita Aranguren, Igantzikoa, urriaren 18an.

Sugoi Irazoki Arroyo, Sunbillakoa, urriaren 12an.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Anduetzeto, 12 | ETXALAR | 948 635 458

HERIOTZAK

Miguel Bertiz Aranburu, Narbarteakoa, urriaren 13an, 77 urte.

Honorio Taberna Bera, Doneztebekoa, urriaren 13an, 86 urte.

Concepcion Ubiria Alzuguren, Elgorriagakoa, urriaren 14an, 87 urte.

Miguel Mikelajauregi Altugarai, Lesakakoa, urriaren 22an, 86 urte.



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

VII. URTEURRENA

Eman zenuen bizia euskaragatik, herriarengatik, Euskal Herriagatik, eta azken bederatzi hilabeteetan familia eta lagunei eman zenien bizia, joan arte.

ETXEKOAK



Miguel VERTIZ MENDIBURU

Narbarten, 2012ko urriaren 13an

Atta, 77 urtez bizitako hainbat momentu berexi, zure lanerako griña, zuk emandako maitasuna eta zugandik ikasitakoa betiko gurekin geldituko dira. Atautxi Miguel, eskerrik asko emandako guziagatik.

MAITE ZAITUGU

Mila esker gurekin egon zareten guztiei.



Miguel MIKELAJAUREGI ALZUGARAI

Lesakan, 2012ko urriaren 22an

Zure musikaren oihartzuna gurekin betiko.

ZURE FAMILIA

Mila esker gurekin egon zareten guztiei.





ttipi txartelarekin beti irabazten da!
deskontuak + zozketak + aldizkaria musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

576. ALEKO IRABAZLEAK

* POSADA OITZ 2 LAGUNENDAKO OTORDUA

Kontxita Arakues Mazizior | LESAKA

* URTXINTXA ESKOLA

PUNPALAPLAN CD + DVD

Angel M^a Larralde Ibarola | URDAZUBI

* LESAKAKO UDAL IGERILEKUA

2 SARRERA

Izaskun Sein Garcia | IGANTZI

* ONINART KAMISETA

Mikel Arburua Etxeberria | IGANTZI

* ELKAR 3 LIBURU

Azazkalak jaten ditut eta zer? + Txomintxo eta Perutxo bakarik geratu dira etxean + Elefantearen semea

Elena Ara Iglesias | BERA

* AQUARIUM 2 SARRERA

Edurne Urtasun Jaimereña | IRURITA

zozketak



KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



2 LIBURU
Erein Argitaletxea
www.erein.com

deskontuak

AYLA
argazkigintza
BERA | %10 karnet argazkietan

IPINGI
ELIZONDO
%10, 30€tik gorako gastuan

IPARLA
kirolak
ELIZONDO
%8, 30€tik gorako gastuan

CASA OSTIZ
DONEZTEBE
%10eko deskontua oinetakoetan

ARRATE E/STETIKA ZENTROA
DONEZTEBE | %10 "Skeyndor Eternal" krema guztietan

Kimetz
Belardenda
DONEZTEBE | %5 kosmetikan



2 LIBURU
Ttartalo argitaletxea
www.ttartaloargitaletxea.com



IRRIA ALDIZKARIA + KARTA JOKOA
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.kabiporreta.com



LANKU liburua + DVD + CD
Lanku argitaletxea
www.lanku.com



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com



Anduetzeta 12, 31760 ETXALAR
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

SKEET OLINPIKOA → URRIAREN 12AN GRANADAN

Espainiako txapelketa seigarren aldiz irabazi du Itsaso Fagoaga lesakarrak

Aldi berean jokatu zen Iberoamerikako txapelketan bigarren izan zen

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Espainiako Skeet Olinpiko txapelketa seigarren urtez irabazi du Itsaso Fagoaga lesakarrak urriaren 11 eta 12an Granadan. Emakumezkoek 75 plater tiratu zituzten 25 platerako 3 serietan banatuta eta horietatik 65 hautsi zi-

tuen. Honela, Espainiako txapelkun izateaz gain, aldi berean jokatu zen Iberoamerikako txapelketan bigarren izan zen lesakarra.

Txapelketa honetan Guatemala, Brasil, Argentina, Txile, Portugal, Venezuela, Bolivia, Kolonbia, Panama eta Peruko parte hartzaileak zeuden eta azken momentura arte lehia estua izan zuten. Gainera, azkeneko seriean makina bat puskatu eta pieza bat aldatu zuten eta pieza hori aldatzeko plateretako bat bi-ziago ateratzea eragin



UTZITAKO ARGAZKIA

Itsaso Fagoaga, Melisa Gil argentinarra eta Francisca Crovetto txiletarrarekin batera.

zuen. Horrez gain, haitze atera zuten eta kanpoa zailagoa geratu zen. Halere, Itsaso Fagoagak bere mailari eutsizion. Lehenengo postuan zen Melisa Gil argentinarrak, aldiz, bere emaitza jaitsi eta azkenean plater bakarragatik irabazi zion lesakarrari. Horrela, txapelketa honetako irabazle Argentinako Melisa Gil izan zen; bigarren, plater bakarrera, Itsaso Fagoaga gelditu zen eta hirugarren, Londoneko

olinpiadetan zortzigarren izan zen Francisca Crovetto txiletarra.

Itsaso Fagoaga hagitik kontent dago emaitzarekin, «batez ere azkeneko seriean kanpoa oso zaila zegoelako eta tiratzaile gehienek serie horretan maila jaitsi bazuten ere, nik nire mailari eutsi niola». Gainera, olinpiar joetan zortzigarren izan zen bati irabaztea «niretzako poztasun handia izan da eta txapelketa honetako emaitzak

aurrera jarraitzeko eta gogor lan egiteko motibazioa eman dit», erran digu lesakarrak.

Bertzalde, Antonio Javier Fagoaga bere aitak ere Espainiako txapelketan parte hartu zuen eta zazpigarren gelditu zen, finalean sartzeko postu bakarrera.

Aurtengo denboraldia bukatu badu ere, ez du eskopetari deskantsu handirik emateko asmorik Itsaso Fagoagak, ehiza sasoiaren burubelari murgildu baita.

FUTBOLA → NAFARROAKO FEDERAZIOAREN ESKUTIK

Benjamin eta alebin mailako taldeak ligan lehen aldiz

Beti Gazte, Gure Txokoa, Doneztebe eta Baztango taldeak ari dira

TTIPI-TTAPA

Orain artean, konpetzioko futbol liga ofizialak infantil mailan hasen zuten eskualdeko taldeek. Aurtun, Nafarroako Federazioak benjamin (7-8-9 urte) eta

alebin (10-11 urte) mailako neska-mutikoen dako liga antolatu du. Baztan, Beti Gazte, Doneztebe eta Gure Txokoa hainbat talde atara dituzte bi kategoria horietan futbol-8an aritzeko eta urriaren 20-21eko asteburuan hasi ziren. Haserako partidak Lesakan, Donezteben eta Elizondon jokatuko dituzte beti, Nafarroako osoko taldeak mul-tzoka banatu baitira.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA ETA JUANJO GUERRERO

Benjamin eta alebin mailako 21 talde egin dituzte eskualdeko taldeek. Horra batzuk.

PILOTA → AZAROAREN 11 ARTEKO EPEA DAGO HORRETARAKO

Malerrekako eskuz binakako XI. txapelketan izen emateko epea zabalik

2013ko urtarril erdialdera hasiko dira lehiariak

TTIPI-TTAPA

Malerrekako eskuz binakako XI. pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu du Doneztebeko Erreka elkarteak. Pilotariak lehen mailako benjaminetan, alebinetan, infantiletan, kadetetan, jubeniletan, 22 urtez behekoen eta senior elite kategoriatan lehiatuko dira. Kategoriatan lehiaketak irekia izanen da, senior elite lehiaketan izan ezik, hemen pilotariak gonbidatu egingen



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urtero bezala, partehartze handia espero da Erreka antolatutako pilota txapelketan

baitituzte. Hirugarren urtez Diario de Noticias izena hartuko duen txapelketa kanporaketa bidez jokatu da eta 2013ko urtarril erdialdera hasita, otsaileko azkeneko astean edo martxoko lehendabizi-

koan akitzea espero dute. Federatutako pilotariak azaroaren 11 arteko epea izanen dute izen emateko, horretarako salaae@gmail.com helbide elektronikora idatzi eta norbere telefonoa edo posta elektroni-

koa jarri beharko dira izen-emateko orrian.

IGANDE GOIZ ETA ASTEAZKEN ARRATSALDEZ

Txapelketako partidak gehienak igande goizetan jokatu dira. Legasako benjamin maila-

koak, Iruritan alebin mailak, Lesakan infantil mailakoak, Donezteben kadeteak, Beran jubenil eta aub-22 mailakoak (azken hauek astezketan) eta Donezteben senior elite mailakoak (astezketan).

PILOTA → ZORTZI KATEGORIATAN BANATUAK

52 bikote hasi dira Bortzirietako eskuz binakako XII. txapelketan

Abenduaren 1ean jokatu dira finalak Beran

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako XII. Eskuz binakako pilota txapelketa urriaren 19an abiatu zen. Urtero bezala, bortz herrietako pilotariak adin ezberdi-

netako pilotarien partidak ikusten ari dira asteburuero eta aurten, lehen aldiz, jubenil mailakoak ere arituko dira.

Denera 52 bikote lehiatuko dira hasierako ligaxkan zortzi kategoriatan: aurrebenjaminak, benjamin A eta B, alebinak, infantil A eta B, kadeteak eta jubenilak. «Ikusten da Bortzirietako pilota eskolak be-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Urriaren 19an abiatu zen txapelketa.

re fruitua ematen ari dela eta elkarrekin egiten duten entrenamenduak garrantzitsuak direla. Horregatik, momentuan baditugu bortz herrietan kadete sail bat eta jubenilak aspaldiko partez. Iparraldetik ere gero eta pilotari gehiago etortzen dira, bai entrenatzera,

baita txapelketa jokatzera ere», diote eskolatik.

Bortz herrietako pilotariak ez ezik, Oiartzun, Hondarribia, Baztan, Sara, Senpere, Urruña eta Donibane Garaziko pilotariak ere ari dira. Finalak, dena ongi badoa, abenduaren 1ean jokatu dira.

Ugaitz Elizalde eta Beñat Oronoz Nafarroako txapeldun

Nafarroako buruzburuko pilota txapelketaren finalak jokatu dira asteotan. Urriaren 12an kadete eta jubenil mailako finalak jokatu ziren eta bietan izan ziren eskualdeko ordezkariak. Jubeniletan, Errekako Ugaitz Elizalde ituren-darrak 18 eta 8 irabazi zion Huarteko Astiz-i, baina kadetetan, Bortzirietako Ander Errandonea beratarrek 9-18 galdu zuen San Juaneko Lasorekin. 22 urtez behekoen finalan, berriz, Errekako Beñat Oronoz lesakarrak 18 eta 4 irabazi zion Pilotajaukuko Lopez-i urriaren 21ean Labriten.

azaroak 1-15

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



ELIZONDO | 2012.11.04-11

Folk Ametsetan Zikloaren baitan The Pink Rangers

Folk Ametsetan Zikloaren barnean hiru emanaldi izanen dira datozen iganetan Arizkunenean. Lehenbizikoa The Pink Rangers taldeak eskainiko du.

Ospakizunak



ARANTZA | 2012.11.01

XVII. Baserritarren Eguna antolatu du Ekaitza elkarteak

Bertan egiten dena erakusteko helburuarekin Baserritarren Egunaren 17. edizioa antolatu du Ekaitza elkarteak. Ardi gazta lehiaketa ere eginen da.

Bestak



AURTITZ | 2012.11.08-11

San Martin besten barrenean Gozategiren emanaldia

Egitarau zabala prestatu dute San Martinen ohorez, baina 25. urteurreneko diska aurkeztu berri duen Gozategiren emanaldia izanen da aipagarriena.

Bestak

AURTITZ

San Martin bestak

Azaroaren 8tik 11ra
Aurtizko bestak. Xehetasunak 20. orrian.

Ikuskizunak

BERA

Oberena dantza taldearen emanaldia

Azaroaren 10ean
Oberena dantza taldeak *Lizarren doinua* ikusgarria eskainiko du 18:00etan Kultur Etxean.

Ospakizunak

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean antolatu du Ekaitza Elkarteak. Xehetasunak 576. alean.

SARA

Usoaren Besta

Azaroaren 4an Usoaren Besta eginen da. Xehetasunak 33. orrian.

LESAKA

Jubilatuaren Eguna

Azaroaren 9an ospatuko dute.

Zinema

LEITZA

Zine denboraldia

Azaroaren 2 eta 4an *Declaración de guerra* filma eskainiko da zinema.

Azaroaren 9 eta 11n *Moonrise Kingdom* filma eskainiko da zinema. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

DONEZTEBE

Zine denboraldia

Azaroaren 4an *Tintin* filma eskainiko da zinema 16:30ean eta *American Pie* 8 filma 18:30ean.

Erakusketak

URDAZUBI

Monasterioko kalostrean

Abenduaren 31 arte ikusgai izanen da monasterioko kalostrean *Euskal Herriko margogintzaren 50 urteak* erakusketa.

IRURITA

Zaharreen berria bilatzen

Azaroaren 9an *Zaharreen berria bilatzen* bideoaren aurkezpena eta argazki zaharren erakusketa Iruritako Jauregian, 19:00etan. Bidelagun eta Dorrea Elkarteak antolatua.

ELIZONDO

Zaharreen berria bilatzen

Azaroaren 9an *Zaharreen berria bilatzen* bideoaren aurkezpena eta argazki zaharren erakusketa Arizkunenean 18:00etan. Bidelagun eta Dorrea Elkarteak antolatua.

LESAKA

Beti Gazteko argazki lehiaketa

Azaroaren 12tik abenduaren 2ra ikus-

gai izanen dira *Beti Gazte* elkartearen egoitzan argazki lehiaketara aurkeztutako lanak.

Kontzertuak

ELIZONDO

Folk Ametsetan Zikloa

Azaroaren 4an The Pink Rangers taldea (Blues-country music) ariko da 19:00etan Arizkunenean.

Azaroaren 11n Urbalia Rurania taldea (Mediterraneoko musika) ariko da 19:00etan Arizkunenean. Anto-

latzailea: Baztango Euskara Batzordea.

DONEZTEBE

Ernadi Rock II

Azaroaren 3an kontzertuak eskainiko dituzte Afu, Bide Bakarra, Kaskezur eta Garraxi taldeek 22:30ean.

ETXALAR

Lesakako Abesbatza elizan

Azaroaren 4an Lesakako Abesbatzak emanaldia eskainiko du elizan 12:15ean, Etxalar-

ko Udazkeneko Kultur Egunen barrenean.

ARANTZA

MAUT project Aterpen

Azaroaren 1ean MAUT project taldeak kontzertua eskainiko du Aterpean, 22:30ean.

Feriak

DONEZTEBE

Udazkeneko Feria

Azaroaren 16an Udazkeneko Feriak ospatuko dituzte Donezteben. Xehetasunak 35. orrian.

PROPOSAMENA

BORTZIRIAK

Antzerki zikloak Beran eta Lesakan

Lesakako Mairu antzerki taldeak antolatutako Keinu Leihok 2012 Zikloaren emanaldi izanen dira azaroaren 1, 2 eta 3an. Beran, berriz, Kafe Antzerki Zikloaren 14. edizioa azaroaren 9an abiatuko da eta hurrengo bi ortziraletan ere antzezlanak ikusgai izanen dira ostatu eta gaztetxean. Antzerkia jendeari hurbiltzeko ekimen politikak.



Antzerkia

BERA

XIV. Kafe Antzerki Zikloa hasiko da

Azaroaren 9an *Beste aldekoak* antzezlanaren eskainiko dute Asisko Urmeneta eta Peio Etxekopar-ek 22:00etan Xugan.

LESAKA

Keinu Leihoak 2012 Zikloa

Azaroaren 1ean *Herio Heroi* antzezlanaren eskainiko du Metrokuadroka taldeak Kasinon 18:00etan.

Azaroaren 2an *Euskalduna naiz eta arraro nago* antzezlanaren eskainiko du Barry Barrez & Baltziskueta taldeak Atxaspin 22:30ean.

Azaroaren 3an *Agur Manhattan* antzezlanaren eskainiko du Xagu Antzerki Taldeak Kasinon 20:30ean.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Azaroaren 4ean Lekaroz-Olaberri-Beltzuri-Etxebertzeko Borda-Eskisaroi-Atxuela-Unboto-Bagordi-Lekaroz ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek (08:00).

Azaroaren 11n Almanoz-Burgalar-Sastra-Gartzaga-Arluz-San Blas-Almandoz ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek (08:00).

SUNBILLA

Ulibeltzak mendi taldea

Azaroaren 4an LOteixonera ateraldia antolatuko du Ulibeltzak Mendiko Taldeak (08:00).

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Barkamena, kondena, tortura

JOXE AZURMENDI OTAEGI

Elkar, 2012

Gure bizigiro politikoan egunero entzuten ditugun kontzeptuei buruz ari da Azurmendi liburu honetan, ez, baina, eslogan berak behin eta berri errepikatuz gure belarriak zulatu eta burmuinak nahieran moldatzeko, ezpada ideia horien sakoneko esanahiak aztertu eta ur lohi horien iturri zaharrek argitzeko. *Barkamena, kondena, tortura* izenburuak *Estatua kontzientzien kontralatazailea* azpiztitulua darama, lehen elizak betetzen zuen funtzioa orain Estatuak betetzen duela baitio egileak: «Estatua zure barruan dago, omnipresente, ezin zaio eta ez dago zergatik erabat ihes egin. Haren etengabeko kontzientzien inbasioari mugak jarri, bai, batez ere espainola bezalako Estatuetan eta bakearen ingurukoa bezalako arazoetan. Lehenbiziko urratsa inbasio horren kontzientzia hartzea da. Are gehiago moralarekin politika kamuflatu eta moralaren izenean politikoki bortxatu nahi bazaitu».

Musika



Oinak kantuz

AIKO

Elkar, 2012

Bost urteren ondoren, Aiko taldeak dantza tradizionalen osaturiko CDa argitaratu du. Grabazioek, erritmoez eta piezen ordenek taldearen dantza-saio bat gogorarazten digute. Pieza guztiak berriak dira, hori bai, modu tradizionalen idatziak eta interpretatuak: pasodobleak, jotak, jauziak, txotisak... Bolero, habanera eta tangoren bat ere bai tartean! Lan honetan Aitor Furundarena (eskusoinua), Alvaro Garcia (gitarra), Asier Garcia (danborra) eta Sabin Bikandi (txistua) aritu dira lanean. Aiko kultur elkarteak aspalditik dabil musika eta dantza tradizionala «komunikatzen, kutsatzen, gartzatzen, hedatzen eta irakasten», baina hori gutti baliatuz, «dantza egiteko modu erraz eta naturala» aldarrikatzen dute, «lotsa eta konplexu guztiak» albo batera utzita bakoitzak bere erara dantza egin eta dantzaz gozatu dezan. Eta dantza egiteko musika ezinbertzekoa denez, *Oinak kantuz* diskoa sortzea erabaki zuten Aikokoe.

Internet



UEUko natur zientzien inguruko proiektua

EUSKALNATURA.NET

EuskalNatura proiektua 2006an sortu zen. Helburu nagusiak hauek ditu: Euskal Herriko natura eta natur zientziak jende guztiaren eskura jartzeko, euskarak Interneten duen presentzia handitzeko laguntzea eta naturzale gazteei gustuko dituzten gaiak eta jarduerak lantzea ahalbidetzeko. *EuskalNatura.net* webgunearen proiektua 2006ko irailean hasi zen martxan, orduan Biologiako 2. maila hasi berritan zeuden sei ikasleren eskutik. eta 2007ko urtarrilean argitaratu zen webgunearen lehenengo bertsioa. Webguneak aldaketa nabarmenak jasan ditu, ordea, azken 5 urteotan, baina gorabeherak ere. Joan den urtean martxa galdu zuen webguneak, baina galtzen utzi ezin zela eta, 2012an UEUrekin batera berri ere martxan dago eta webgunea guztiz berri dute, sistema berriarekin, zerbitzari berriarekin...

Nire aukera



Zarbo IBARROLA
Doneztebeko informatikoa

«Oilagorrek gauzez harrapatu eta haiei eraztunak paratzea bizio bat da»

Doneztebeko informatika denda bateko jabea da, baina bere mundua ez da ordenagailuetara mugatzen. Lanak uzten dion denbora librean gehienbat naturarekin kontaktuan egiten diren kiroletarako joera du. Garaian garaiako kiroletan aritzea gustuko duela aipatzen du «udaberri eta udan parapentze hegalek egiten dut, ederra da paraje guzti hauek hangoitik ikustea». Urtaro aldaketarekin parapentea alboratu eta bestelako kiroletan aritzen da «udazkenean eta neguan ehiza eta eskia egiten ditut. Piriniotara joaten naiz etxeko sorgin bikotearekin noizbehinka egun batzuk pasatzera». Oporretan azkenekoek Asia aldean ibili da «azken bidaia joan den urtean egin nuen, Kirgiztanera joan ginen». Ehiztaria da baina, eskopeta albo batera utzita gauzez mendian ere gozatzen duela dio «oilagorrek gauzez harrapatu eta haiei eraztunak paratzea bizio bat da. Markatu ondoren, berriro aske uzten ditugu».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. 17 eta 18 milio pezeta/ 106.000 eta 112.000 euro. ☎ 948 585036.

ELIZONDO. Etxebizitza salgai, 330m², 4.000m²ko partzela. Paregabeko tokian kokaturik. Argiak izan du lehentasuna etxearen diseinuan, material modernoak. Beraz sentitze-ko eta bizitzeko etxea. ☎ 610 508206.

ANZABAL

IMMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra- rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Pisua trastelekuarekin salgai. Kanpora ematen du eta bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela dauka. Etxeak igogailua dauka. Erabat hornitua, altzari eta kalefakzioarekin. Salmenta prezioa: 152.000 euro. ☎ 619 221318.

LESAKA. Etxea salgai, prezio onean. ☎ 609 477277.

LESAKA. 66 m²ko pisua salgai herri erdian. 2 trasteleku, garajea eta igogailuarekin. Berri-berria. Prezio negoziagarria. ☎ 657 708866.

DONEZTEBE. Bilogela-ko etxebizitza berritua

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

salgai 15m²ko trastelekuarekin. 112.000 euro. Ez gelditu ikusi gabe, ez duzu deus galduko. ☎ 630 160353.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

LEGASA. Etxebizitza errentan emateko edo salgai. Berritua eta mobleztatua. ☎ 677 089046

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela dauka. Kanpora ematen du, kalefakzioa eta igogailuarekin. Erabat prestatua bizitzeko. Prezioa: 400 euro gehi gastuak. ☎ 696 166566.

IGANTZI. 70m²ko pisu berria errentan emateko, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, kalefakzioa, eta marra garajea. Prezioa: 400 euro. ☎ 670 218613.

ELIZONDO. Pisu mobleztatua errentan emateko. Santiago karrika. ☎ 636 81 2766.

LESAKA. Albistur karrikan lur azpiko bajera errentan emateko. ☎ 618 962937

LESAKA. Erdi-erdian pisua errentan emateko. Mobleztatua, 3 logela, berogailua, balkoiarekin eta argitsua. ☎ 670 754034.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

BERA. Bikote batek Berran etxea edo pisua errentan hartuko luke. ☎ 687 609684.

LEZO. Pabilioia errentan emateko, 400 m² eta fosa- rekin ☎ 600 901058.

BERA. Kanttonberri karrikan pisua errentan emateko. Hiru logela, kalefakzioa, igogailua eta

mobleztatua. ☎ 699 646257

DONEZTEBE. 2 logela-ko bizitza berritua salgai. 15m²ko trastelekuarekin. 112.000 euro. Ez gelditu ikusi gabe, ez duzu deus galtzen! ☎ 630 160353.

ETXEBIZITZAK
pisua konpartitzeko

BERA. 30 urteko neska batek, pisua konpartitzeko beste neska bat to- patu nahiko luke. ☎ 662 585965.

ZERBITZUAK
denetarik

Frantseseko klaseak eskaintzen dira Bera eta Donezteben. Astearte, asteazken eta ortzirale- tan. Irakasleak lizentziatuak eta natiboak dira. ☎ 948 305430/☎ 948 146677.

Baztan, Malerreka eta Bortzirietan egur loteak egin, materialetarako arbolak bota eta ateratzen dira, prezio oso onean. ☎ 600 789034.

**LANA**
eskariak

Zonaldeko mutila pintatze lanetan, baserriko lanetan, mantenimendu lanetan (lore zaintza, erai- kuntza...), egurra egiten... ariko litzateke. Lanean berehala hasteko prest. ☎ 636 599336.

Emakumezko bat Elizondo edo zonaldean garbiketarako egiten, plan- txalantetan, fregatzen, fre- gaderan egon edo per- tsonak zaintzen ariko li- tzateke. ☎ 603 640776.

Zonaldean bizi den **emakumea** interna moduan lan egiteko prest dago. Elizondon externa edo interna moduan ere lan egiteko prest dago. ☎ 673 533472.

Emakumezkoa, kotxea- rekin, etxeko lanak egi- ten eta pertsonak zain- tzen ariko litzateke. Dis- ponibilitatea goizeko 10etatik aurrera. ☎ 699 651477.

Emakumezkoa, autoa- rekin, etxeko lanak egi- teko, dendari bezala edo zerbitzari lanetan aritze-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(irailaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 42 € (+3,00)

Zerri gizena
1,480 € kilo. (-0,01)

Zerramak:
0,920€ Kg/bizirik. (+0,01)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10

1.koa 3,84

2.koa 3,68

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,28

1.koa 4,00

2.koa 3,86

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen du- ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 150,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 120,00

idixkoak 150,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,97/3,07

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,60/8,70

8-10 kilokoak: 6,60/7,00

ko eskaintzen da. Frantses apur bat badaki. **☎689 126822.**

LANA
eskaintzak

NAFARROAN, ordezkarri independenteak behar dira: zure nagusia izan, etxetik lan egiteko, enpresa independente bat ezarri etxean. Aurreko esperientzia ez da beharrezkoa. **☎626 981768.**

IBARDIN. Frantsesa dakien neska bat behar da Ibardin inguruan publizitate banaketan aritzeko. **☎948 631658/ 650 981950.**

SUNBILLA. Aurrerakada SCik (lan bertikalak) lan poltsa ireki du etorkizuneko obretan lan egiteko. Bidali curriculumak: contacto@aurrerakada.com-era edo postaz Donibane kalea 18, 31791 Sunbilla helbidera.

MOTORRAK
salgai

Golf VGTI salgai. 200 cv. 2007koa. Beltza. Egoera onean. **☎606 799 875.**



Citroen Saxo 1.1 gasolina salgai. 1997koa, 5

ate, 140.000 km. Merke! **☎690 108968.**

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Ongi zaindua. **☎628 572273.**

ANIMALIAK
oparitzeko

5 hilabeteko arratoi txakurkumea eta 11 hilabeteko mastin emea oparitzen dira. **☎629 417078**

DENETARIK
salerosketak

Belar idorren paketeak behar ditut. **☎948 580231**

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. **☎659 867287/ ☎699 461394.**



IDIAZABAL. Arkume larruak salgai, eskuz landuak. Informazio gehiagorako deitu **669 995433** edo idatzi eiderka@hotmail.com

ORONNOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da.

☎676 242520.

Eusebio Arizaga markako **eskopeta** paralela raiatua eta motza salgai. Kanoiak 60 zentimetroko luzera, kanoi bat raiatua eta bertzea zilindrikoa. Kulata pistolet-erdia eta bi gatilo. Oilagorretarako aproposa, baita basurdean resakatzen ibiltzeko, raiatua ongi doa breneke balekin. **☎686 730516.**



Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. **☎655 701165.**

ELIZONDO. Egoera arras onean dauden egurrezko mueblea eta ispilua salgai. **☎670 779682.**



DONEZTEBE. Egoera ezin hobean dagoen erradiadore elektrikoa salgai, termostatoarekin. **☎619 913375.**

EZ GELDITU PNEUMATIKO ZAHARREKIN, GUK EROSIKO DIZKIZUGU!

10€² GURPILENGATIK* **20€⁴** GURPILENGATIK*

Gainera:

-%50 bigarren pneumatiko berria + montajea eta ekilibratua doan*

* Eskaintza baliagarria 2012-12-31 arte. Marka hauetan balio du: Goodyear- Michelin Dunlop- Continental- Pirelli- Bridgestone

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

Talleres SANTESTEBAN, S.A.
Leitzako errep. 80 | Doneztebe | T. 948 450 282
F. 948 450 857 | doneztebe@red.renault.es




BERAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

OSOKO BILKURAREN AKORDIOAK

Berako Udaleko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 9an, ondoko espedienteak onetsi ditu hasiera batez eta hilabeteko epean jarriko dira jendeaurrean, dagozkion iragarkiak NAOn argitaratzen direnetik kontatzen hasita:

- Udal Plan Orokorren aldaketa xehakatu UU24an (9. poligonoa, 379. lur-zatia).
- Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzailea 10. poligonoko 23. partzelaren zatian, UE.Lekueder sortzekoa.

Bera, 2012.10.22
ALKATEA,
M^a Sol M. Taberna Iratzoki



DENETARIK
galdu/aurkituak

LESAKA. Antoiun, far-

mazia parean, urre zuri eta horiko aliantza aurkitu dugu. Eratzunean "Estitxu 28-06-2008" grabatua dago. **☎948 637004.**
LESAKA. Poney garañoa, marroi iluna faltatua da. **☎948 637492.**

ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da



+ ttipi-ttapa aldirkaria doan
39 dendetan deskontuak
hamabostero zozketa izugarriak

40euro
- 10euro

30euro

*-25eko desgrabazioa
«««« errentaren
aitortpenean*

TTIPI-TTAPAren urteko kuota **32 euro** balio du. **TTIPI TXARTELA** dutenek, **30euro** pagatuko dute urtearen azkenean, Errentaren Aitorpenarekin 10euro itzuliko baitzaie

AUTO eta **BIZIKLETA** tailerrak: Berauto | Daturcelay | Katea-Bike | Sansiñena | Zalain Motor. **AUTO ESKOLAK:** Semper. **ARGAZKI-DENDAK:** Ayla | Galko | Mera | Zaldia **ARROPA-DENDAK:** Bokiak | Edure | Fantzike | Ipangi | Juan J. Pikabea | Katalingorri | Kukuka. **BITXI-DENDAK:** Ebarate. **ESTETIKA ZENTRUAK:** Amaia | Arrate. **ETXETRESNAK:** Altzur. **HAURREN GAUZEN DENDAK:** Pottoki. **JATETXEAK:** Eibeteko posada | Oizko posada. **KIROLDEGIAK:** Lesakako Udal Kiroldegia. **KIROL-DENDAK:** Agara | Iparia | Zela. **LENTZERIAK:** Kattagorria | Maricruz. **LIBURU-DENDAK:** Nafarpress | Maimur. **NUTRIZIOA** eta **DIETETIKA:** Oreak | Kimet | Erika. **OPARI-DENDAK:** Alustiza. **OPTIKAK:** Intzuri | Ostargi. **PENTSUAK:** Mendaur. **TINDATEGIAK:** Jaione. **ZAPATA-DENDAK:** Ostiz | Txinela.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko btxekea; 4) www.ttipi.net bitartez



ANARTZ SANCHEZ APEZETXEAK 6 urte egin ditu urriaren 10ean. Zorionak gure mutil txikiari aitaixo, amatxo eta Goizuetako familiaren partez.



Azkenean bai! **AIMARREK** 2 urte beteko ditu urriaren 19an! Zorionak eta muxuak, Doneztebeko atautxi eta amaxiren partez.



JON LARRETXEAK gure muttirik azaroaren 4an 6 urte beteko ditu. Ongi ongi pasa eta muxu handi bat familia guztiaren partez!!!!



XANET APEZETXEA ETXEBERRIA goizuetarrak 4 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak bihurri! Muxu handi bat atta, ama eta Aioraren partetik!



ALAIN ETXEPARE AIESTARANEK urteak beteko ditu urriaren 24an. Zorionak Alain zure urtebetetzean familia guztiaren partetik eta bereziki Beñaten partetik.



BENAT eta IZARO ZELAIETAK urriaren 8an, 4 eta 1 urte bete dituzte. Zorionak etxeko pottokiei familia guztiaren partez.



Doneztebeko **JUNE JUANENA LARRAZA** eta Urrozko **MARCOS JUANENA IRIBARREN** biloba atautxiak urriaren 25ean eta 19an urteak betetzen dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik. Ah, aierrik gaude heldu den bilobaren jaiotzarekin.



JARE IBARRA TABERNA goizuetarrak urte bat bete du urriaren 27an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Goizuetako **IREBER INDAKOETXEA MENDIZURIK** urtea beteko du azaroaren 7an. Zorionak eta muxu pilo bat gure etxeko txikiari ama, atta eta Goizuetako, Hernani eta Usubilgo familia guztiaren partetik.



Lesakako **JULEN CANAL ARTOLAK** urtea bete du urriaren 28an. Zorionak Julen!!! Zure alaitasuna zabaltzen jarrai dezazula! Muxu handi handi bat familia osoaren partez.



IKER APEZETXEA ESAINEK 2 urte bete ditu urriaren 27an. Zorionak eta muxu handi bat Elizondo eta Goizuetako familia guztiaren partetik.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en

argazki soila

4


EURO

aldizkarian interneten

argazki bikoitza

8

EURO



Doneztebeko **MATTIN RETEGUI AZPIROZEK** 6 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak eta urte askoan, ongi pasa egun handi hori! Aurrerantzean ere segi horrelako mutil azkarra izaten. Muxu handi bat zure anaia Ander, aita, ama eta familia guztiaren partetik.



MAXUX ELIZAGOIEN, KLEMENTE IRIARTE eta **JOXE M^a GOROSTERRAZUK** urteak beteko dituzte urriaren 28an eta azaroaren 6 eta 15ean. Aunitz urtez familiaren partetik. Zeinen ongi geunden argazkian. Ongi ongi pasatu eguna eta berendutxoaren zain geldituko gara. Muxuk!



Goizuetako **ELAIA NARBARTE MAKATZAGA** alai bezain politak, 3 urte beteko ditu azaroaren 14an. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Beñaten partetik. Eta muxu potolo bat gure olentzero tikiari familia guztiaren partetik.



Tomás Sobrino tomassobrino.blogspot.com

EHIZARI BURUZKO XX. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Urriaren 26tik abenduaren 2ra

www.consorciobertiz.org

ALMANDOZ Beola | 948 585 300
ARANTZA Burlada | 948 634 027
ARANTZA Aterpe erretegia | 948 634 179
BERA Euskalduna | 948 630 392
BERA Zalain | 948 630 967 / 948 631 106
BERA Zubiondo | 948 625 472
DONAMARIA Donamariako Benta | 948 450 708

DONEZTEBE Ametzia | 948 451 902
ELBETE Elbeteko posada | 948 581 519
ELBETE Oñaska Berri | 948 452 088 / 653 035 755
ETXALAR Herriko Ostataua | 948 635 450
ETXALAR Hotel Venta Etxalar | 948 635 000
IGANTZI La Villa | 948 637 290
IRURITA Olan | 948 452 254
LESAKA Koxkonta | 948 627 503 / 948 627 519
OITZ Posada de Oitz | 948 451 951



ANTOLATZAILEA: BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA
Landa Turismo Zentrua
31720 OIEREGI (Nafarroa)
Tel.: 948 59 23 23
bertiz@consorciobertiz.org
www.consorciobertiz.org



Laguntzaileak:
Nafarroako Gobernua **Gobierno de Navarra**



Navarra
Nafarroa
www.turismo.navarra.es

Doneztebeko feria egunean

OUTLET

Parrokia 19an



Mari Cruz
LENTZERIA
T. 948 450 112

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoizko ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, brikak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertzer, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.





TEILA FRANTZESA

eta teilatuentzako sistemak



Eixelegu Baserria

GALLEANE12 Rojo Occitan

les tuiles
DISTRIBUCIONES S.L.

948 123 713

info@lestuiles.es

www.lestuiles.es

BERMEAK



Cette tuile a été développée et testée en soufflerie au Centre Technique de MONIER.



Teilatua berria edo teilatua aldatzeko beharrian zaude?